



ARGIA

ZIBURUKO AZOKA

Euskara hutsezko liburu eta diskoen aterpea

26-32. orriak



2.828 | 2023 / 06 / 11 | 4,00 €



**Desazkundera,
aintzat hartua
ez den soluzioa**

12 | EKONOMIA



**"Nafarroan
barruraino sartu
dute euskarafobia!"**

16 | MARIA LUISA MANGADO



**Laborari txikiak
Food For Future-ren
aurrean**

33 | AGROEKOLOGIA



NO!

ELI PAGOLA, MAITANE GARTZIANDIA ETA MIREN ARTETXE

Komiki berria

140 orrialde koloretan

Prezioa **24 €**

Bidalketa gastuak **5€**.

Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

Eskaintza berezia

Ekainaren 11 arte

ARGIAko kide bazara **20 €**-an

ARGIAkoa eginez gero
jaso etxean **opari**

azoka@argia.eus

(+34) **943 37 15 45**

AUTO BIDAIAK BERTSO SAIOETARA BIDEAN.
ZORIZKO ALIANTZAK ETA ADISKIDETASUNAK.
OHOLTZAPEKOAK. OHOLTZA GAINEKOAK.
BOTERE HARTZEAK, GARAGARDOAK ETA KONPRESAK.
EMAKUMEOK JENDAURRERA JAUZI EGITEAN
BIZI DITUGUN POZAK, ALEGIA.

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


AZALEKO ARGAZKIA: **DANI BLANCO**

Iritziak

- 21 | MIKEL ZURBANO
- 22 | ANE ABLANEDO
- 23 | INMA ERREA
- 23 | ITXARO BORDA
- 24 | HAFSA TAHIR ETA
AITOR ALUSTIZA

Finkoak

- 38 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 47 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGİ-KONTRA:
IRANTZU PASTOR
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO
BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


IRANTZU PASTOR

33 | "3D POBREENTZAKO JANARIA IZANGO DA"

BEC-en Aztik antolatutako Food For Future kongresuaren atarian baserriar txikiak elkartu ziren, etorkizuneko janaria lurrari lotua izango dela aldarrikatzeko. Deialdia egin zutenak elkarriketatu ditu Estitxu Eizagirrek. Mintzatu dira etorkizuneko janariaz eta autonomiarako aukerez zein dependentziarako zepoez.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

"Desazkunde" kontzeptuak zergatik du oraindik hain onarpen guti?

Nicolas Goñi

16 | PERTSONAIA | MARIA LUISA MANGADO

"Sekulako poza hartu nuen Irulegiko eskua aurkitu zutenean"

Miel A. Elustondo

26 | ZIBURUKO LIBURU ETA DISKO AZOKA

"Lagun zaharrekin elkartzen naiz bertan"

Gorka Peñagarikano

42 | KULTURA

Artista tripa-zorroak

Julen Azpitarte

44 | KULTURA | ARTEA

"Estratu artean" erakusketa, eskulturaren geruzetan

Jone Alaitz Uriarte

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez,
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre,
Gorka Peñagarikano, Irati Irazusta,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Lander Arbelaitz, Leire Artola,
Leire Rodriguez, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Pello Zubiria,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaina taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:




KOMUNIKAZIO GRAFIKOA




software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu,
moldatu, zabaldu eta argitaratu
ditzakezu, gure egiletza aitortu eta
baldintza beretan eginez gero.

Lizentzia hau baliagarria da
testuontzat eta, argazkien eta
ilustrazioen kasuan, ARGIAren
sinadura daramatenentzat soilik.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

A large group of people, many wearing blue t-shirts, are standing in front of a building with a colorful mural. The group is arranged in many rows, filling the courtyard. Some people are wearing blue t-shirts with yellow text, while others are in casual clothing. The building behind them has a large, colorful mural on its facade. The scene is outdoors, with green foliage in the foreground on the left.

Arkautekeriari stop

“(2018an) helburu terroristarekin substantzia eta gailu lehergarriak gordetzea eta horiekin trafikatzeari” egotzita lau urteko espetxe zigorra ezarri zieten Galder Barbado eta Aitor Zelaia gazte arabarrei. Epailea, Angela Murillo, 2017an ETaren armagabetzea sinesten ez zuela zioen togadun hoolingana. Fiskala, José Perals, Altsasuko gazteen aurkako fartsa guztia defenditu zuena. Madrilgo ankerkeriaren auzitegian dena dela posible ondo ikasi dugu, baina kasu honen sortzaileak ez daude han. Ertzaintzak idazitako txostena da oinarri nagusia. Txosten bat zeinean, salatu dutenez, beste ezeri baino orrialde gehiago eskaini dioten bi gazteen militantzia politikoa agerian uzteari. ETarik gabeko garaioan, Galder eta Aitor terroristak direla esan ahal izateko lanordu asko sartu dute Ertzaintzan. Akaso hobe zuketen esfortzu hori bideratzea ertzainek beraiek, zigorrik jaso gabe, torturatu dituzten ehunka herritarren kasuak argitzera.

📷 1.200 lagun baino gehiago igandean, Amurrión, bi gazteei babesa adierazteko. **ANDIMA ERRAZTI / AIARALDEA**

🔴 **AXIER LOPEZ**



EAJk eta PSEk akordioa itxi dute instituzioak beren artean banatzeko

LANDER ARBELAITZ MITXELENA

EAJ eta PSE-EE alderdiek gober-nagarritasun ituna berretsi dute. Akordioari esker, EH Bildu lehen indar geratu den leku ugaritan elkarre-kin gobernatzeko aukera izango dute. Gasteizko Udalean, Gipuzkoako Batzar Nagusietan eta beste hainbat udaletan, beraz, egoera argitzen doa. Leku as-
kotan beharrezko izango duten PPren babesa aipatu gabe bidali dute oharra.

EAJ-k eta PSE-EE-k gobernagarri-tasun ituna itxi dute, eta honenbestez Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan koalizio gobernuak osatzea adostu dute, baita udal ugaritan ere, aurreko legegintzal-dian indarrean zuten ituna "ahal den leku guztietan" aplikatuta.

Bi alderdien izenean argitaratu du-ten komunikatuan, argazkirik gabe, diote maiatzaren 28ko udal eta foru hauteskundeek mapa elektoral "anitzta eta zatikatua" utzi dutela EAEn, "eus-kal gizartearen aniztasunaren isla".

Honenbestez, espero da EH Bildu lehen indar gisa geratu den lekuetan, zenbakiak hala bermatuz gero, EAJ-k eta PSE-EE-k agintea eskuratzea.

Hori egiteko, ordea, duela lau urte

baino konplikatuago izango dute. Izan ere, bi alderdion indarra jaitxi egin da eta EH Bildurena igo, beraz, aurreko legegintzaldiko ituna errepikatzeko leku batzuetan PPren babesa beharko dute, orain arte ez bezala.

Leku horietako bat dira Gipuzkoa-ko Batzar Nagusiak. Maddalen Iriar-tek 15.000 boto eta bost eserlekuko aldearekin irabazi zion 25.000 boto galdu dituen Eider Mendoza hautagai jeltzaleari.

EH Bildu 17tik 22ra igo da, eta EAJ 20tik 17ra jaitxi, baita Jose Ignacio Asensio buru duen PSE ere 9tik 7ra ere (10.000 boto galdu dituzte hauek ere). Mendozak ordea, iragarri du ahal-dun nagusi izaten saiatuko dela, eta horrek esan nahi du PPren babesa beharko dutela, EH Bildu eta Elkarrekin Podo-mosen baturak 24 ematen baitu, EAJ-
ren eta PSEren batura bezalaxe. EAJk eta PSEk esana zuten ez zutela onar-tuko PP beren gobernuetan sartzea, baina alderdi espainiar eskuindarrak esan du zein den beren babesa nahi ba-dute "marra gorria": Gipuzkoako kirol diputatu kargua berena izatea. ●

Milaka lagunek gaitzetsi dute Gasteizko hilketa matxista

IRATI IRAZUSTA JAUREGI

Hainbat elkarretaratze egin ziren joan den astean, Gasteizko hilketa matxista salatzen. Maiatzaren 27 goizean aurkitu zuten Maialen Mazon 32 urteko emakumearen gorpua Gasteiz-ko apartamentu hotel batean, 3 urteko alaba ondoan zuela. Orduak egin zituen alabak gelan, Ertzaintza iritsi arte. Arra-tsalde horretan atxilotu zuten bere biko-tekide ohia, Zaragozan. 32 urteko gizona taxi batean zihoan Gasteiztik ihesean.

Mugimendu Feministak adierazi du "jendarte osoaren ardura" izan behar dela "indarkeria matxista ahalbidetzen duten jarrera konplize guztiak bazter-tzea eta erasotzaileei aurre egitea". Ma-zonek jasandako "babesgabetsun egoe-ra" ere salatu dute.

Javi Roca emakumearen bikotekide ohiak urruntze agindua zuen ezarrita, eta Ertzaintzak horren berri zuen ur-tarriletik. Urtarrilean, Gasteizko hotel batean hartu zuen ostatu bikoteak, izen faltsu batekin. Hoteleko arduradunek Ertzaintza jakinaren gainean jarri zuten, eta orduan jakin zuten Poliziak gizonak urruntze agindua zuela. Josu Erkoreka Jaurilaritzako Segurtasun sailburuak adierazi duenez, Ertzaintza emaku-mearekin harremanetan jarri zen, eta hark urruntze agindua bertan behera uzteko eskatu zuen, "ez zelako arriskuan sentitzen" eta gizonarekin harremana mantendu nahi zuelako. Gizona zergatik ez zuten atxilotu galdetuta, Erkorekak adierazi du ez dakiela. Bikotea ez zenez Gasteizen bizi, ez zuen kasuaren jarrai-penik egin Ertzaintzak.

Maiatzaren 18an Borriako (Valen-tzia) Guardia Zibilak jakinarazi zion Er-tzaintzari Maialen Euskal Autonomia Erkidegora bizitzera etortzekoa zela, eta orduan jarri zen berriz harremanetan emakumearekin. Sailburuak adierazi du orduan ere urtarrileko eskaera bera egin zuela, hau da, urruntze agindua ber-tan behera uzteko, arriskuan sentitzen ez zela-eta. "Ez da erraza arriskuan sen-titzen ez den biktimatik bat babestea". ●



MATERIALISMO HISTERIKOA

Madalenak



UXUE APAOLAZA LARREA

Prousten madalena aipatzeak ia debekatuta behar luke da-goeneko, baina ia behartuta nago aipatzera. Ez dira egun asko batekin topo egin nuela, eta sei urte nituen garaira eraman nau. Udalekuetara, Goñira. Orduan sei-zazpi urtekoen-tzat bazen astebeteko eskaintza bat, eta ni, nola ez animatu egin nintzen, gero, han nengoela, nire zapata bat gorde behar izan nuen arren negar egiteko aitzakiaren bat izateko: "Zapata galdu zait", gurasoak ikusi nahi ditut esan ordez. Gauetan, norbaiti bururatu zitzaion haur guztiak oheratu ondoren, ideia ona zela bozgorailuetatik nobela bat irakurtzea, gau ba-koitzean zati bat. Ez dakit zenbat ulertuko genuen, badakit ni desiatzen egoten nintzela erdi ulertzen nuen zera hura entzu-teko. Orduan ez nekien "nobela", gutxiago "beltz".

Urteak pasa behar izan zuten etxean nobela bat irakurtzen hasi, eta gogoia litera haietara joateko. "Hau zen, hau zen!". Madalena. Harrituta, buruko zokoren batean gordeta nituen pertsonaia, aldarte, giroa... hain konpartituak zirelako, ez ezku-tuko zerbait. Eta hain misterioitsuak iruditutako pertsonaiak, egoerak... ez ziren hainbeste, baina eusten zioten oraindik. Eta barru-barrutik eskertu nion gauetan hurrei nobela beltz bat irakurtzea bururatu zitzaion hari opari hura egin izana. Nik ere ez nuke egingo, gutxiago gaur egun, agian. Ondo ulertu ez nuen hark, horretxegatik, agian, marka sakona utzi zidan nonbait, iradokitzen zidana orrialde haietatik harago baitzihoan, irado-kitzen zidana literatura bera baitzen. *Hamabost egun Urgainen*. Eta duela egun gutxi, madalenak madalena gogorarazi zidan.

Garai batean, nago, gutxiago adinkatzen, mailakatzen zen, eta behar ez genuen sustoren bat hartuko genuen, baina go-goan iltzaturik zenbat inkognita eder. Ulertu ez genuena modu berezian gogoratzen dugu, madalenek galdera itxura izaten dute maiz. Orain, beste ero batzuek *Hamabost egun Urgainen* hura berreskuratu dute. Irakurri, ez dagokienei. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Langile borroka

Soldata kontzeptu guztiak inflazioarekin lotzeko eta lanaldia eta behin-behinekotasuna murrizteko protesta egin dute ekainaren 5ean, Michelinek Euskal Herrian dituen bi lantegietan, Gasteizen eta Lasarte-Orian. Antza denez, lan ituna adosteko jarrerak oso urrun daude.

Presoak

Hirugarren gradua kenduta, Basauriko espetxera itzuli dute Joseba Borde Ugaoko euskal preso politikoa. Espetxe Zaintzako Epaitegiak errekurtsua ebatzi bitarte espetxean jarraitu beharko du. 20 urte egin ditu kartzelan 64 urteko preso ugaoztarrak. 2019an bete zituen zigorraren hiru laurdenak.

Kazetaritza

Berria egunkariko zuzendaritza Amagoia Mujika Tolaretxipik hartuko du. Martxelo Otamendi 30 urtez izan da *Euskaldunon Egunkariako* eta *Berriako* zuzendari, eta erretiroa hartuko du. Mujika 1995etik aritu da bi hedabideetan kazetari, eta azken urteetan zuzendariorde izan da.

EKONOMIA

Borroka sindikalaren garrantzia, Urkulluk esana




AINHOA ETXAIDE
AMORRORTU

Iñigo Urkulluk lan gatazketan aurkitu nahi izan du EAJk hauteskundeetan galdutako babesaren arrazoa. Begiratu ziezaiekeen bere alderdiaren kudeaketari, ustelkeri kasuei, Zaldibarrekoari, zerbitzu publikoen gainbeheran dituzten ardurei edo, instituzioetatik burua pixka bat aterata, Euskal Herrian krisi ugariaren gainean hezur mamitzen ari diren joera soziopolitikoei. Ez du horrelakorik egin noski, euskal sindikatuengan kokatu nahi izan du eztabaida; euskal langileen gehiengoak babesten eta egiten duen sindikalgintza ereduari jarri du fokua.

Ohikoa da ardurak gainetik kentzea, berririk ez horretan. Baina kritika zorrotza izan nahi zuena, euskal sindikalgintzaren balioa aldarrikatzen jarraitzeko adierazpena izan da. Lan baldintzak hobetzen dituzten hitzarmenak lortzeaz gain, erabaki politikoetan eta eztabaida sozialetan eragiteko gaitasuna aitortu die euskal sindikatuak. Gizon honen hitzak ez dira neurgailurik hoherena langile borrokaren balioa aztertzeko, baina oso adierazgarria da arduradun instituzionalen sindikalgintza aldaketan eragile gisa kokatzea.

Hainbat udal eta bi foru gobernu nork zuzenduko dituen jakiteko bada- go ere, ordezkarik gehiago izango dira herrigintzatik Euskal Herriak behar dituen aldaketak eragiteko asmoz lan egingo dutenak. Baina badakigu gobernuak aldatzea eta politikak aldatzea ez dela gauza bera: bata bestea ekartzeko, beharrezkoa izango da sindikalgintzatik aldaketan alde borrokan ari diren langileak eta krisi ugari horiei jardura instituzionalaren bidez aurre egingo dieten ordezkariek eskuz esku lan egiten ikustea. ●

ANALISIA



3DNATIVES

Food 4 futur-en soluzio distopikoa

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Duela gutxi arte, hango putzuetatik tira egin zuten laborariek, baina jada ezin dute. Zenbait gunetan, 300 miligramo nitrato dituzte litroko, eta baimendutako maximoa 50 da". Berria-k uraren kudeaketaz osaturiko erreportajearen irakurritako esaldia dugu, eta Nafarroa hegoaldeko Caparrosa herriaz ari da. Bertan du Valle de odieta enpresak bere 8.000 abelburuko makroetxaldea -jabearen webgunean "biogranja, proyecto sostenible" gisa aurkezturikoa-. Urak kutsatzeaz gain, ur anitz kontsumitzen duen nekazaritza eredia. Uraren kontsumoaren %80 laborantzara doa. Kasu ondoko ñabardurari: laborantza industrialera doa. Laborantza herrikoia bere ingurugiroaren errespetuan dabilelako, dituen muga eta aukeren arabera antolatuz berea.

Berria-ko erreportajea irakurtzen nenbilela, inguruko laborarien egoera datorkit gogora. Idortea eta logika espekulatiboa direla-eta, ekoizpen kostuen emendioari aurre egin nahian direnei. Zailtasun handietan ditugu etxalde ttipi andana. Loia kentzerainoko eta morala goibeltzerainoko zailtasunetan ditugu inguruko laborari andana. Alta, ez dira horiek uraska erraldoi, urtegi edota ureztapen handien erabiltzaileak; ezta uren eta lurren kutsatzaile nagusiak ere.

Hortik, BECen burutu berri den Food 4 Futur azokara joan zait gogo. Laboraririk gabeko elikagai-industriaren erakusleihora. Meloi haziak erabilia eraikitako gasna beganora, 3D inprimagailuak sorturiko txuletara, adimen artifizialari esker sorturiko glutenik gabeko garira, zein onduriko fruituak detektatzeko eta biltzeko gaitasuna duen robotera. Agroindustriaren sustatzaile berberak ditugu orain ere bioteknologikoaren promotoreak: laborantza agroindustria bihurturik, orain elikagai-industria bilakatu nahian dabilta. Laboraririk, bizidunik eta lurrik gabeko jaki-ekoizpenean omen dugu etorkizuna. Euskal Herriko komunikabideek egindako jarraipenak harritu ninduen. Antolatzaileen hitzak bere horretan, inolako so kritikorik gabe, zabaltu izanak kezkatu ninduen. Goseteari eta biztanleriaren emendioari aurre egiteko aterabidea dugu Food 4 Futur. Bat: gezurra da. Bi: mineralak eta metalak ezinbesteko dituen teknologia zertan dugu aterabide, munduaren beste puntakoei guzia suntsitzen badie? Hiru: landa eremuen hustea eta hiltzea ekarriko luke ere horrek. Food 4 Futur-en jarraipena egiterakoan, hankak lurrean beharko lituzke kazetariak, distopia soluzio gisa ez aurkezteko. ●

927

adingaberi egindako sexu-abusuak aitortu ditu Espainiako

Eliza Katolikoak, 1940ko hamarkadatik aurrerako kasuak aztertuz pederastiaz egin duen lehen txostenean. Pederastiaren aurkako elkarteek hainbatetan azpimarratu dutenez, icebergaren muturra baino ez da.

1

urte baino gehiago irauten du, itsasoan batere degradatu gabe, gehien erabiltzen den bioplastikoak. Alegia, plastiko biodegradagarria ez da hain biodegradagarria, aztertu dutenez.

283

boto alde eta 155 kontra izan dituen lege proiektua onartuta, Brasilen 1988ko Konstituzioa onartu baino geroago okupaturiko lurrak ez dituzte aitortuko indigenen lur gisa. Amazoniako indigenen lurrak deforestatzaileen esku utzi ditzake legeak.

“Gure herriko eredu poliziala aldatu nahi zuten batzuek, ‘zipaios’ eta ez dakit zer gehiago. Arrisku hura kanpotik zetorren, baina orain barruan daukagu arriskua”

JOSU BUJANDA

Ertzaintzaren buruak Arkautiko omenaldi batean adierazia.

2023-06-03



“BETI ERRAN DIDATENEZ, EUSKAL HERRIAN EMAZTEAK SUKALDEAN GELDITZEN DIRA”

PHILIPPE TAYEBEN

Aviron Bayonnais errugbi taldeko presidentea.

2023-05-30

[Hezkuntza Lege berrian] “A ereduko ikastetxe batek erabaki dezake irakastorduen %80 gaztelaniaz ematea, eta noizean behin, euskara hobeto ikasteko hiru eguneko barnetegira eramatea haurrak”

JOKIN BILDARRATZ

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua.

2023-05-31



TEKNOLOGIA

Mugak



DIANA FRANCO

Mugarri eguna izan dugu Duragon: herriko Alpino Elkartek urtero bezala herritarrekin txangoa egiten du herri ezberdinen arteko mugak zehazten zituzten mugarriak ezagutzeko. Ederra izan da txangoa eta azalpenak inspirazio hutsa. Badirudi antzinean, herriko pertsona zaharrenek zutela mugarrien kokapenaren jakintza, eta pertsona horien laguntzarekin urtero egiaztatzen zuten mugarriak beren lekuan zeudela. Egun, mugarriak antzinako dinamika baten oroimena baino ez dira, herrietako kartografia aldundietan digitalizaturik aurkitu baitezakegu. Baina zutabe honetako gaira bueltatuz, muga hitzak askorako ematen du. Ereku teknologikoan, mugak babestea baino, mugak gainditzea bilatu izan da beti, teknologiaren munduan “mugarriak” mugitzeko grina dugu gizakiok, baina antzinean ez bezala, aurreko egoerara bueltatzea ez da harri bat mugitzea bezain erraza. Zientzia eta teknologiaren “mugarriak” mugitzeak eraldaketa sakonak ekarri ditzake gizarteetan.

Adimen artifizialaren inguruan honako esaldia irakurri berri dut: “Adimen artifiziala gizadia desagertzeko aldagai bilakatu daiteke”. Esaldia Adimen Artifizialaren Segurtasun Zentroaren webgunean publikatu dute (safe.ai) eta gaur egun gai honen inguruan munduan ezagutza handiena dutenek sinatu dute. Nolabait, teknologia honen “mugarria” berrikusten dabiltza. Gizakion garapena aurrera doa etengabe, baina jada badugu zenbait memoria, ikusi dugu pentsatu barik egiteak, merkatuen tiraniak gidatuta, beti ez duela emaitza onik ekartzen. Gutuna sinatu duten askok aurrera egin ahaliko lukete euren enpresen helburu ekonomikoaren bilakaeran. Zorionez, modu etikoan jokatzek ere badu lekua merkatuan, eta horregatik, gutuna ez da euren negozioen gainera harriak botatzea, euren negozioaren inguruan sustraiak eraikitzea baizik. Adimen artifizialaren inguruan estandarrak diseinatzeak, eta erregulazioa bultzatzeak, etorkizuneko adimen artifizialaren mahai-jokoako arauen diseinuan buruan jarriko ditu hausnarketa hauen inguruan dabiltzanak. ●

NAZIOARTEA



Kosovo, beste behin ere

AXIER LOPEZ

NATOk Jugoslavia ohiaren kontra (Serbia) aldebakarreko erasoak egin zituenetik 24 urte igaro dira, eta 15 urte Kosovok aldebakarrereko independentzia aldarrikatu zuenetik, erreferendumik edo hauteskunde plebiszitatorik egin gabe. Baina urteak pasata ere, tentsioa ez da desagertu eta talkek ziklikoki berpizten jarraitzen dute.

Kosovo lurralde disputatua da serbiarren eta albaniarren artean. 1999ko bonbardaketen ostean, NATOk eta AEBek diseinatu zituzten herrialdearen egiturak eta funtzionamendua, eta hala, etnia bakarreko proiektu bilakatu zuten. Baina ez guztiz; egun 1,8 milioi herritarren %90 albaniarra da, %6 inguru serbiarra.

Azken egunotan, 80 pertsona baino gehiago zauritu dituzte Kosovo iparraldean, NAToko 30 soldadu barne, azken urteotan izandako istilu larrienetan. Horren arrazoia da Kosovo lau udalerrian serbiarrek uko egin diotela alkateak aitortzeari. Herri horiek salbuespena dira, han serbiarrek gehiengoak direlako. Apirileko udal hauteskundeean serbiarrek uko egin zioten parte hartzeari, eta horregatik herri horietan gutxiengo albaniarrak soilik bozkatu zuen (hautesleen %4 baino gutxiago). Maiatzaren amaieran, serbiar komunitateko kideek udaletxeetako sarbideak blokatu zituzten. Kosovoko Poliziak indarrez erantzun zuen, eta protestak bortitza bihurtu dira.

Serbiarrek eskatzen dute alkateak eta Kosovoko Poliziaren unitate bereziak erretiratzea. Kosovoko Gobernuak diskriminatzen dituela adiera-

zi eta autonomia handiagoa eskatu dute. Gobernuak ez du eskaera onartu, "horrek herrialdearen osotasunaren aurka egingo lukeelako".

NATOk iragarri du beste 700 militar bidaliko dituela, gerraz geroztik Kosovon dituen 3.800 militarrekin batera aritzeko. Europar Batasunak (EB) lau udalerrietako alkateak dimisioa ematea eta berriro hauteskundeak egitea proposatu du. EBk Kosovoko komunitate serbiarrari eta Serbiako Gobernuari eskatu die hauteskunde boikoterako deiak alde batera uzteko. Kosovoko presidente Vjosa Osmanik ziurtatu du prest daudela hauteskunde berriak egiteko, beti ere "legezko prozesu baten ondorio" badira.

SOKA LUZEA

NBEko estatuen erdiak baino gutxiagok aitortu du Kosovoren independentzia; nagusiki AEBen aliatu neoliberalak. Salbu, noski, mugimendu sezesionistak dituzten herrialdeak, tartean Espainia. Kosovo aitortu ez dutenen artean Latinoamerikako, Afrikako eta Asiako herrialdeen gehiengo zabala dago, tartean Errusia, India eta Txina.

Nazioartean ere banaketa nabaria den arren, Mendebaldeko potentziek Kosovorako diseinatutako estatus politikoa mugiezin mantentzen da, eta arazoak sortzen jarraitzen du. Arago, kosovotarren gehiengoak Albanian integratu nahi du, baina horretarako ere eskuak mugatuta dituzte. Ez dira gutxi herrialdean bertan diotenak Kosovo neokolonia edo sasiestatua dela. AEBek European duten base militarrik handiena ez dago alferrik Kosovon. ●

Zergatik ez du bermatzen Jaurlaritzak Lanbide Heziketa euskaraz ikastea?

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

A sko dira euskarazko batere ikasgairik gabe Lanbide Heziketako ziklo osoa egiten duten ikasleak EAEn, berak ezarritako legea urratzen duelako Eusko Jaurlaritzak. Lanbide Heziketan euskaraz ikasi ahal izateari eta zikloak euskalduntzeari Jaurlaritzak "blokeoa" ezarria diola azaldu digu Iñaki Mendiluzek: "Ziklo guztiak D ereduan ere eskaini beharko lirатеke, eta aukeratu dezatela ikasleek zein eredutan nahi duten ikasi ziklo hori".

Lanbide Heziketan matrikulatzeko epea bukatu berri, urteroko gaia azaleratu da: ikasketa hauek ez dute bermatuta euskaraz ikasi ahal izatea. Oso adierazgarriak dira datuak: DBHn D eredua nagusi den arren (2021ean, adibidez, ikasleen %71k ikasi zuen D ereduan), Lanbide Heziketara pasa eta nabarmen eskasten da kopurua (urte berean, ikasleen %24k baino ez zuen ikasi D ereduan Lanbide Heziketa). Eskuinean dituzue datuon grafikoak, eta gaur egun joera hori mantentzen dela azaldu digute Steilas sindikatutik: DBHn eta Batxilergoan gora egiten du D ereduaren aukerak, eta Lanbide Heziketan aldiz, behera. Aurreko hizkuntza ibilbidearekiko haustura agerikoa da.

Batetik, ziklo asko A ereduan bakarrik eskaintzen direla salatu dio ARGIA-ri Iñaki Mendiluze Steilasko kideak, "eta horrek esan nahi du A ereduan baino ez direla emango ziklo horiek". Lanbide Heziketa euskaraz ikasteari administrazioak muga eta blokeoa jartzen dio la dio Mendiluzek. Gainera, A ereduak berezitasun bat du Lanbide Heziketan: berez, A ereduan euskarazko ikasgaia ematen dute ikastetxeek, ez ordea Lanbide Heziketan. Bertan, ingelesezko ikasgaia ematen dute, baina euskarazkoa ez. Alegia, ikasle ugari euskararen inongo presentziarik gabe egiten duela ziklo osoa.

Antzera gertatzen da Lanbide Heziketan bakarrik dagoen beste hizkuntza eredu batekin: B+. Zer esan nahi du B+ ereduak? A eta D ereduetan matrikulatutakoak nahasten ditu heziketa ziklo berean eta hiruzpalau ikasgaitan ikasleen banaketa egiten da, batzuek

euskaraz eta besteek gaztelaniaz ikasi dezaten. Baina banaketa hori gertatzen ez den ikasgaietan hizkuntza eredu gaztelania hutsa da. Ondorioz, B+ eredu horretako ikasle askok ere ez dute inongo kontakturik euskararekin, ziklo guztian.




Horrek Jaurlaritzaren beraren legea urratzen duela gogoratu digu Mendiluzek, 4/2018 legeak honakoa baitio: "Bai euskara eta bai gaztelania ezinbestean jasoko dira Lanbide Heziketa guztiko prestakuntza-programetan, ikasleek trebezia nahikoa garatu dezaten". Ez da betetzen, eta "larria da", Steilasko kidearen hitzetan. Lege horrek ere aitortzen du Lanbide Heziketa "bi hizkuntza ofizialetan jasotzeko eskubidea", eta administrazioak bere gain hartzen du bai "D eredu zabaltzea", bai "behar diren neurriak" hartzea "lanbide-heziketara igarotzean etenik gerta ez dadin aurreko etapetan egindako hizkuntza-aukeretik". Bistan da ez dela hala egiten.

Beste datu adierazgarri bat: iazko azaroan atera zuten Lanbide Heziketaren VI. Planak ez du euskara hitza behin ere aipatzen, 134 orrialdeko dokumentuan.

ZERGATIK?

D ereduan ikasteko eskubideari muga Lanbide Heziketan baino ez zaio jartzen, zergatik? Eskaintzaren planifikazioa nabarmendu du Mendiluzek: "Lanbide Heziketa euskalduntzeko borondate falta ikusten dugu planifikazioan, zein irizpideren arabera antolatzen da? Ziklo guztiak D ereduan ere eskaini beharko lirатеke, eta aukeratu dezatela ikasleek zein eredutan ikasi nahi duten".

Beste gako garrantzitsu bat ere aipatu digu: urtetan irakasleak sartu dira Lanbide Heziketan beharrezkoa den euskarazko hizkuntz eskakizunik gabe, eta oraindik ere, irakasleak egonkortzeko meritulehiaketetan sarri ez da euskara eskatzen, "beraz, euskaraz irakasteko gai ez diren irakasleak ditugu... Galdera da, zergatik eskatzen dira oraindik euskarazko hizkuntz profilik ez duten irakasleak?". ●



Steilasen 2021eko azterketan ikus daitekeenez, DBHn eta Batxilergoan gora egiten du D ereduaren aukerak, eta Lanbide Heziketan aldiz, behera. Aurreko hizkuntza ibilbidearekiko haustura agerikoa da. A ereduko ikasleek eta B+ eredu bereziko ikasle askok ez du inongo kontakturik euskararekin Lanbide Heziketako ziklo osoan.

"DESAZKUNDE" KONTZEPTUAK ZERGATIK DU ORAINDIK HAIN ONARPEN GUTI?

Maiatzaren 15, 16 eta 17an, Europako Legebiltzarrean "Hazkundetik haratago" izeneko konferentzia batek hazkundearen garrantzia eta esangura zalantzan jartzen zituen, Barne Produktu Gordina bezalako adierazleak desegokitzen joz. Halere, gure erakundeetan aintzat hartzetik urrun dago desazkundera, eta mende Erdiko ibilbidean kontzeptu honek emaitza guti lortu du. Zer beharko lukete desazkundearen aldekoek hori aldatzeko?

 NICOLAS GOÑI

Mundu mugatu batean ezin da hazkunde mugagaberik izan", hori da desazkundearen mezu nagusia, 1970eko hamarkadan modu egitura-tuagoan teorizatu zenetik. Gure ekoizpen sistema eta bizimoduak iraunkorrak izan daitezen, baliabide naturalen ustiapena eta ingurumenari egindako kalteak murriztu behar dira, jasagarritasun mailara itzuli arte. Desazkundeak bi iturri nagusi ditu: modelizatzaileak eta ekologia politikoaren teorialariak. Lehen multzoan sar genitzake Nicholas Georgescu-Roegen, 1971n argitaratu duen *The Entropy Law and the Economic Process* ("Entropiaren Legea eta Prozesu Ekonomikoa") lanarekin, edota

**Gure askatasunak balio
du kontuan hartzen
baditu planetaren muga
fisikoak, ekosistemen
konplexutasuna, gizakien
hauskortasun osagarria
eta kooperazioaren
eskakizunak**

Erromako Klubak 1972an bultzaturiko "Hazkundearen Mugak" txostenaren egile nagusia den Dennis Meadows. Ildo honetakoek muga fisikoak dituzte irizpide, eta hortik ondorioztatzen dituzte maila globalean egin beharreko hautuak ekoizpen moduei dagokienez, arlo soziala asko landu gabe.

Ekologia politikoaren multzoa, berriz, anitzagoa da, eta arazoa kuantitatiboki aztertzeaz haratago politikoki aztertzen du. Simone Weil, Hannah Arendt eta Günther Anders filosofoek gaia jorratu zuten, desazkundera bera aipatzen ez bazuten ere: industriaren garapena azkartzearen testuinguruan, lanaren eta ekoizpenaren esanahia zalantzan jartzen zuten, ingurumenean ez bakarrik



SINBOLOA

2000ko hamarkadatik barraskiloaren irudia erabili ohi da desazkundearen ikur gisan, industrializazioa mantsotzeko beharra adierazteko.

baita gizakian eta gizartean ere zituzten albo kalteak analisatuz. Horiez gain, desazkundearen bigarren ildo honen izen aipatuenean artean daude André Gorz, Jacques Ellul, Ivan Illich edota Tim Jackson. Pentsamendu ezberdinak garatu arren, neurritasuna ardatz izanzen duen gizartea helburu amankomuntzat dute. Gizakiaren duintasuna eta askatasuna aberastasunean baino beharrak zehazteko eta beharrei erantzuteko autonomian dautzala diote.

DESAZKUNDEA TABU, BAINA HAZKUNDE BERDEA POSIBLE?

Desazkunda 1970eko hamarkadan modu sakonagoan teorizatzen hasi ziren, eta mende erdi geroago argi dago ez

**Gizakiaren duintasuna
eta askatasuna,
aberastasunean baino
beharrak zehazteko eta
beharrei erantzuteko
autonomian datzala
diote desazkundearen
teorialari nagusiek**

duela arrakasta handirik izan. Antonio Turielek ARGIAren 2825. alean eskainitako elkarrizketan dioen gisara, hitza bera oraindik tabua da. "Hazkundearen Mugak" txostena atera ondoren, egileei malthusianistak omen zirela leporatu zitzaizen, hots populazioa murriztearen aldekoak. Kritika hori fede txarrekoa bazen ere –populazioak murrizketa bortizik ez pairatzeko aholkuak ematen zituztelako–, aitortu behar zaio muga bat: kontsumo mailaren aldakortasuna ez zen kontuan hartzen beren modelizazioetan; horregatik aberastasun arrakalaren eragina ez zen agertzen baliabideen agortzean; eta berdin kutsadura pairatzeari dagokionez, ez ziren ageri aberastasun asimetriak. Ber-

tze hitzetan erranda, dimentsio soziala eskas zen lan hartan.

Halere, dimentsio soziala erdian jartzen zuten desazkundearen pentsalariak bazterrekoak izan dira beti, eredu ekonomiko nagusiaren ikuspegitik serio-ski ez hartzeko utopistak. Desazkundera tabu izatearen arrazoi nagusi bat izan daitezke zorra eta interesak, hazkundera behartzen dutenak, horren ezean krisi ekonomikoak sortzen baitira. Horrek bertzte arazo handi bat sortzen du: mundu mailan Barne Produktu Gordina (BPG) praktikan oso lotua zaiola erregai fosilen erabilpenari. Beraz hazkundeak klima aldaketa larritzen du.

Azken hiru hamarkadetan, "garapen iraunkorra" aldarrikatzen da NBEko hainbat ekitalditan, eta azken urteotan "hazkunde berdea" aipatzen da BPGa erregai fosilen erabilera deslotzeari dagokionez. Deslotze hori sektore zehatz batzutan lortzen bada ere, Carbone 4 kontsultaren arabera, klima larrialdiari erantzuteko bortz arau bete behar

"Hazkunde Berdea" helburutzat, baina praktikan BPG oraindik oso lotua zaio erregai fosilen erabilpenari, beraz hazkundeak klima aldaketa larritzen du

ditu: izan behar da "absolutua" –BPG eta ingurumenari eragindako albo-kalteak kontrako norabideetara joan behar dira –, "totala" – berotegi efektuko gas isurketa guzietatik deslotu behar da BPGa –, "mundu mailakoa", "iraunkorra" eta "azkarra" –kalte batzuk ez baitute atzera biderik, bi gradu ko beroketa maila beza-la–. Betebehar horiek guziaz betetzeko

hipotesien egiantzekotasuna oso zalan-tzazkoa da Carbone 4ren arabera. Ez da beraz hain argi zein den utopikoena: desazkundera ala hazkunde berdea.


EREDU EKONOMIKOAK ALDATU, BERRESKURATZEAK SAIHESTU

Karbono kontuez gain, estatu baten BPGa erabiltzen da ere zerga mailak ezartzeko eta estatuaren aurrekontu ezberdinak (hezkuntza, osasuna, kultura...) zehazteko. Gaur arte ez da bertzte modurik aurkitu, nahiz eta proposamen egituratuak egon. Tim Jacksonek 2007an argitaratu *Prosperity Without Growth: Economics for a Finite Planet* ("Hazkunderik Gabe-ko Oparotasuna: Planeta Mugatu baterako Ekonomia") liburuan aurkezten du bere "makroekonomia ekologikoaren" proposamena. Azken horrek hiru ardatz nagusi ditu: enpresaren helburuak aldatu, etekinak maximizatetik gizartearen "ongi bizitzeko gaitasunerako" erabilgarriak diren zerbitzuetara; inbertsioaren berritzea etorkizuneko oparotasune-

DESZAKUNDEAREN ALDARRIA

2014ko irailean Alemaniako Leipzig hirian desazkundearen aldeko manifestaldia, bertan antolaturiko konferentzia baten kariatara.





PROPOSAMEN TEORIZATUA

Tim Jacksonen *Prosperity without growth* ("Hazkunderik gabeko oparotasuna") ikerketaren azala. Iturria: Sustainable Development Commission of the United Kingdom

ra bideratua izan dadin; eta gizarteak behar dituen inbertsioak ahalbideratzeko, diru-sorkuntza burujabetza aldatu, banku pribatuen esku bakarrik izan ez dadin.

Fede txarreko kritikak, eredu ekonomiko hegemonikoa eta balizko hazkunde berdeaz gain, desazkundeak badu orain bertze etsai bat: eskuin muturrak berreskuratzeko arriskua. Deigarria da Alain De Benoist Frantziako eskuin muturreko teorialariak 2007an desazkundeari buruzko liburu bat idatzi zuela. Ez da gertakari bakana, egituratzen ari den mugimendu baten oinarrietariko bat baizik Antoine Dubiau ikertzailea-

**Fede txarreko kritikez,
eredu ekonomiko
hegemonikoaz eta
balizko hazkunde berdeaz
gain, desazkundeak
badu orain bertze etsai
bat: eskuin muturrak
berreskuratzeko arriskua**

ren arabera (ikus *Faxismoa berdetu eta ekologia ikuspegi faxistarekin aztertzen duen gaitza da ekofaxismoa*, ARGIA 2783).

Ekofaxismoari aurre egiteko, Dubiauren iritziz, desazkundearen ikuspegi sozialista batera itzuli behar da. Geneviève Azam ikertzaileak azpimarratzen du natura aipatzea ez dela darwinismo sozialaren alde aritzea, baizik eta gure askatasunak balio duela baldin eta kontuan hartzen baditu planetaren muga fisikoak, gizarteak bermatzen dituzten ekosistemen konplexutasuna, gizakien hauskortasun osagarria eta kooperazioaren eskakizunak. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

www.zinkunegioptika.com



Maria Luisa Mangado

MILITANTE LEHEN ETA ORAIN



SEKULAKO POZA HARTU NUEN IRULEGIKO ESKUA AURKITU ZUTENEAN



1960ko hamarkadaren amaiera aldera, egoera irauli nahi izan zuten hainbat gaztek. Iruñean, Euzko Basterra osatu zuten. EGIko kide ziren. Propaganda egiten zuten batzuek eta, beste batzuek, aldiz, pintadak egiten eta lehergaiak erabiltzen hasi ziren. Hildakoak gertatu ziren, errepresioa, deserriratzea... Mugimendu hartako kide izan zen Maria Luisa Mangado, borrokalari ordudanik.



MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Pandemia aurretik hasi ginen esaten elkarrizketa egin behar genuela.

Pandemia igaro zen, baina larri ibili zinen iaz, bihotzeko ebakuntza tarteko...

Balbula mitrala aldatu behar izan zidaten. Hasteko, nekea sentitzen nuen, batean arnasestua, bestean takikardiak. Halako batean, ekokardiografia egin zidaten, eta, egin ordukoxe, zirujia kardiobaskularrera bidali ninduten, lehentasunez. Balbula mitrala kasik deseginik nuen. Oroitzen naiz ebakuntza egin behar zidatela esan zidatenean galdetu nuela ea guztiz beharrezkoa zen, eta medikuak esan zidala: "Operatu, ala hil". Kar, kar... Maiatzaren amaieran izan zen hori, eta, azkenean, uztailaren 4an operatu ninduten.

Bazenuen kezka, kirofanoan hilez gero, agindua zenuen hileta egiteko modua.

Bai, kirofanora sartzea beti da arriskua, eta bihotzeko kontuak direnean, orduan eta arrisku handiagoa. Egun batetik bestera operatu behar nindutela esan zidatenean, larritu nintzen. Seme-alabei esan nien ebakuntzatik bizirik ateratzen ez banintzen, familiaren panteoian ehorztea nahi nuela, hilkutzaren gainean ikurrina paratuta, eta *Eusko gudariak* kantatzea ere nahi nuela. Horixe zela nire azken nahia, ez nuela mezarik ez apaizik nahi nire hiletan. Kezka handiz sartu nintzen kirofanora, egia da, eta operaziotik esnatu nintzenean, horixe esan nuen lehenengo: "Bizirik nago!". Kar, kar...

"Bizirik nago!", kar, kar...

Baina terribilea izan zen. Ebakuntza ika-ragarria da. Gero, berriz, defentsak baxu nituela gelditu nintzen, hainbat egun egin nituen zaintza intentsiboetan. Sendagaiak hartu, eta bateko eta besteko ondoezak, eta hau eta hura. Luze jo zuen, baina orain oso ongi nago, elkarrizketa egiteko moduan! Kar, kar... Hala ere, ez naiz lehen-go. Lehen, hainbat dantza ximple egiten nituen, zazpi jauzi-eta, adibidez, baina orain ja ezin dut. Nekatu egiten naiz.

Bazen garaia! Euskal musika jaialdiak, Korrika, Aberri Eguna, [Jokin] Artajo eta [Alberto] Asurmendiren urteroko omenaldia, bateko eta besteko manifa-k... ez duzu bat huts egiten!



María Luisa Mangado Cortes

IRUÑEA, 1947



Militantea gaztetatik, 60ko hamarkadako Iruñeko politika giroan sartuta jardun zuen, Euzko Basterran, oroz gain. [Jokin] Artajo eta [Alberto] Asurmendiren heriotzak markatutako belaunaldikoa da, bateko EGI eta besteko ETA. Erbestaldia ezagutu zuen, militante batzuk eta besteak. Iruñera itzulirik, euskara irakasle izan zen urte askoan, Iruñean eta Baztanen, batik bat. Parlamentari ere izan zen Nafarroan, eta esperientzia gazi-gozoz beteta dago, nahiz eta irribarrez ageri den beti edo gehienean, karrikan manifestatzen beti.

Horixe da nire bizitza. Abertzalea naiz, betidanik. Gure aitona Napartarrakoa izan zen, hemengo lehen abertzalea-edo. Nicolás Mangado Erze. Seme-alabak EAJkoak ziren, haien artean gure aita, EAJkoa eta euskaltzale amorratua. Ez zekien euskaraz, hitz batzuk besterik ez, baina euskararen aldekoa. Ama Leringoa genuen, ez zuen askorik esaten, baina badakigu beti gure alde eman izan zuela botoa. Senarrak esaten zuena, eta seme-alaba guztiok –sei neska eta mutil bat– esaten genuena.

Eta zer giro zegoen Iruñeko karrikan garai hartan. 1947an jaio zinen...

Politika giroaz ari bazara, isiltasuna esango nuke. 1960ko hamarkada arte, gehienbat isiltasuna. Gogoan dut atzerriko irratiek esaten zutena entzuteko biltzen ginela etxean. Radio Pirenaica, BBC, Radio Euskadi... Gauez, beti. Eta lagun batzuk ere etortzen ziren haiek entzutera. Jendea etortzen zen gure etxera, bilerak egiten zituzten gure aitarekin. 14-15 urte izango genituen, baina etxean mugimendua ikusten genuen. Juanito Olaetxea-eta. Aitak esaten zigun inork galdetuz gero, kristau ikastaroak zirela esan behar genuela. Politikaz ari ziren, baina etxe barruan.

Karrikan, isiltasuna, esan duzu.

Bai, 1960ko hamarkada arte, esango nuke. Euskalerriko Adiskideen Elkartea bazen, eta euskarazko eskolak ere bai, eta ni Pozoblanco karrikan hasi nintzen. Kantu batzuk ikasi genituen, Haurrak ikas zazue euskaraz mintzatzen... eta hitz batzuk: egun on, gabon, ardoa... Elena Gueresague izan genuen irakasle. Euskaldunak ginen, eta euskaraz jakin nahi genuen. Euskalerriko Adiskideen Elkartea bazuen beste atal bat, gazteena-edo, Euzko Basterra izenekoa, eta han sartu nintzen 1967 aldera. Kultur ekintzak egiten genituen, mendi irteerak... eta, horrekin batera, propaganda banatzen genuen.

Zer propaganda?

EGIkoa. Jose Antonio Urbiola zenak-eta –tartean ziren Urbiolaren emazte Mirentxu Loiarte, eta Bixente Serrano Izko zena–, ziklostil bat zuten, eta buletin bat inprimatzen zuten. *Euzkadi* aldizkaria ere banatzen genuen, eta deialdiren bat baldin bazen, hura inprimatu eta posta jasotzeko etxeko buzoietan sartzen genuen. Sakanako jendea ere

etortzen zen Iruñera, hartzen zuen propaganda eta banatzen zuen Etxarri Aranatzen eta inguruko herrietan. Garai hartan, pertsona berezi bat ezagutu nuen, etxean ezkutatuta eduki genuena. *Itsaso* zuen ezizena, Arantxa Arruti zen, militante fina, ideologikoki ongi jantzia, aurrerakoa... Beste emakume bat, aurrerakoa, Mirentxu Loiarte zen.

1967an sartu zinen Euzko Basterran, eta urte horretan Iruñean egin zen Aberri Eguna, aipu eta sona handikoa.

Baina ez dakit gauza askorik, batek eta besteak –aitak, anaiak, lagunek...–, kontatutakoa besterik. Loradenda batean ari nintzen lanean, eta egunero irekita egoten zen denda hura. Aberri Egun haren bezperan, loreak banatzen ni, eta ikusi nuen karlisten *manifa* bat, Aberri Egunaren kontrakoa! Hantxe, beren txapel gorriak jantzita! Etxera heldu nintzenean, sekulako jende pila zegoen han, 40 lagun-edo, bezperatik Iruñera sartu zirenak, bazekiten-eta kontrolak gero eta estuago izango zirela eta ezin izango zutela sartu.

1968an Aberri Eguna Donostian, gogorra hura ere, eta gogorragoa ondoko urteko gertakaria, zuen taldeko bi lagun hil ziren, lehergaia eskuetan lehertuta.

Apirilaren 6an, 1969ko Aberri Egunaren bezperan. Terriblea! Jokin Artajo eta Alberto Asurmendi hil ziren. Euzko Basterrakoak ziren, gure taldekoak eta gure lagunak, EGIkoak. Esan dut, ni propaganda banatzen ibiltzen nintzen, eta etxean jendea ezkutatzeko genuen. Bestela, ez genekien nor ibiltzen ahal zen han eta hemen ikurrinak paratzen, edo lehergaiak. Artajo eta Asurmendi hil zirenean, pentsatu genuen gure taldekoak ibiltzen zirela lan haiek egiten, baina ziurtasunik ez genuen. Artajo eta Asurmendi hil, eta Adiskideen Elkar-teak kanporatu egin gintuen.

Kanporatu?

Bai, Euzko Basterra han barruan zegoen-eta. Estornes Lasa, Carlos Clavería, Jorge Sarasa, José Luis García Falces ziren zuzendaritzakoak-edo. Esaten zuten Euzko Basterrako bazkideen zerrenda eman behar izan ziotela Poliziari. Ez nintzen askorik harrituko, haiek ezagututa. Taldeko asko atxilotu zituzten, Santi Sadaba, Aparicio, Xabier Armendariz... epaiketa militarra egin



zieten eta hainbat urtez eduki zituzten kartzelan. Kontua da Euzko Basterra biltzeko tokirik gabe gelditu zela, zenbait batzar egin genituen Olite tabernan, baina ez genuen lehenago bezala lan egiteko modurik izan. Gainera, gure taldeko batzuk kartzelara sartuta, orduan eta okerrago. Batzuk Artajo eta Asurmendi hil eta gero harapatu zituzten, eta beste batzuk, berriz, lehenago, Urbanan ikurrina jarri zutelako.

EGIkoak zinetela esan duzu, eta Artajo eta Asurmendi ere EGIkoak, baina lehergaiak zeuzkaten...

Bai. Batzuk EGIkoak ginen, beste batzuk ETAkoak, eta baziren bi taldeek bat egitearen aldekoak ere, EGI-Batasunakoak. Esaten dute, gauzak normal, Artajo eta Asurmendi ETara igaroko zirela, beste asko igaro ziren moduan, baina nik "gero gerokoak" esaten dut. EGIkoak ziren, gu bezalaxe, baina egia da bazitekeela denok ere ETara jotzea, zeren EAJ ez zen mugitzen. [Juan] Ajuriagerrak bultzatu zuen EGI, eta pertsona osoa zen Ajuriagerra, indartsua, bizitasun handikoa, EAJko asko ez ziren bera bezalakoak. Ajuriagerrak gurekin

segitu izan balu, beharbada EGIk iraungo zuen, baina giroa zen ezer ez egitekoa, hegalak moztu zizkiguten. Eta, gainera, gu Poliziak gero eta zainduagoak, biltzeko tokirik ez, lagunak kartzelan...

Azkenean, 1970ean, zuk ere alde egin behar izan zenuen, orduko senar Juan Mari Feliurekin batera.

**“
Seme-alabei esan
nien ebakuntzatik bizirik
atera ezean, familiaren
panteoian ehorztea nahi
nuela, hilkutxaren gainean
ikurrina paratuta, eta
‘Eusko gudariak’
kantatzea”**

Poliziagandik ihesi beti. Propaganda aurkitu zuten gure etxean, Juan Mariren [Feliu] atzetik ere bazebiltzan, lehenago ere atxilotuta eduki zuten, eta egun batean, etxera gentozela, Poliziaren autoa ikusi genuen, auto kamuflatua, baina guk bagenekien Polizia zela, matrikulak ezagutzen genituen eta. Etxera deitu genuen karrikatik, eta Pellok, anaiak, baietz, hantxe zela Polizia, eta ezkutatu egin ginen. Lehenik, HOA-Cekoek gorde gintuzten, Ekintza Katolikokoek, Iturraman eta Atarrabian. Gero, EAJk lagunduta, Donostian egon ginen, Idoia Estornesen eta Jose Antonio Aiestaranen etxean, zenbait egunetan. Etxea utzi ziguten. Ondoren, Juan Mari [Feliu] beste aldera igaro zen, eta ni Gerardo Bujandak ezkutatu ninduen, beren etxean.

Ez zinen Ipar Euskal Herrira heldu?

Bai, baina geroago. Abenduan, Burgosko epaiketaren garaia heldu zen, eta [Eugene] Bëihl kontsul alemanaren bahiketa. Eta salbuespen egoera! Eta nola Polizia beti Gerardo Bujandaren bila joaten zen, handik irten, eta han eta hemen ezkutatuta egon ondoren, urtarrilaren 6an beste aldera eraman ninduten Ziga ahizpek -Lolo, Nati eta Gurutze-, Dantxarinetik. Ez ginen aduanatik igaro, jakina, aduanaren atzeko zeharbide batetik baizik. Nati elbarria zen, eta behar izanez gero guardia zibilak despistatzeko asmotan eraman zuten. Lolo eta Nati autoan geratu ziren, eta Gurutze eta biok beste aldera igaro ginen, oinez. Baina igaro baino lehen ere "Gora Euskadi askatuta!", egin zuen oihu Gurutzek, eta esan nion: "Itxaron, bada, muga igaro arte!". Kar, kar... Beste aldean, itxaroten neukan Juan Mari [Feliu], etxekoak..., eta Donibane Lohizunera eraman ninduten, eta hantxe bizi izan ginen, hainbat errefuxiatuarekin batera Txori-kanta etxean.

Zer oroitzak dituzu erbestaldiaz?

Denetatik. Harreman onak egin nituen. Juan Marik EAJn segitu zuen, nik ez. Alderdiko hainbat jende ezagututa, ez nentorren haiekin bat. Hendaian harreman handia egin nuen Txillardegi eta Jone Forcadarekin, ondoan bizi baitziren. Hantxe egin nuen euskarazko lehen ikastaroa.



Hantxe ari ziren ETako hainbat kide ere. Argala, Txikia, Fangio, Perez Arenaza... Asko, hil zituzten! Baina Juan Mari EAJkoa zen, eta horrek ere ez zuen laguntzen. 1974an, gose greba egin genuen Baionako katedralean, Frantziako Gobernuaren kontra, ETako kideak kanporatu nahi baitzituen. Nik ere parte hartu nuen gose greban, hemeretzi egunez. Han ETakoak ziren denak, ni izan ezik, eta, behin, Bakio-ko neska batek esan zidan Enrike batek esan zuela ni EAJko salataria nintzela.

Hori ere bai?

Bai, hori ere bai. Kontua da jende asko ibiltzen zela han, eta tartean Joseba Elozegi ere etorri zitzaigula, animoak ematera, nirekin hitz egin zuen, eta zurrumurrua, EAJko salataria nintzela. Gau hartako batzarrean, halako gauzak esaten ari zirela, eta azalpenak eskatu nituen: "Urtebete-ko alaba dut, eta hura etxean utzita ari naiz gose greban. Zer ari zarete?". Inork ez zidan erantzun. Nik, orduan, banindoa- la esan nuen. Jendeak ezetz, ez joateko, Monzón-eta, geratzeko eta geratzeko. Nik ezetz, ezin nuela han gelditu, negarretan, dudatu egin zutela. Eta alde egin nuen gose grebatik. Baina, adibidez, hantxe zegoen *Cocoliso* [Jesús Arrondo Martín], benetako polizia infiltratua! Hark eraman zituen heriotzara, Hondarribiko segadan, *Poeta* [Xabier Roque Mendez] eta *Moriko* [Jose Luis Mondragón]. Bateko gezurrak, besteko omenak, mesfidantza giroa...

Garai latzak!

Zaila eta latza. Batzuek eta besteek bat egiteko saioak-edo egin ziren. Gogoan dut egun batean Jesús Maria Leizola lehendakariak halako mitin edo saio bat egin zuela Donibane Lohizunen, baina erabateko porrota izan zen, ez zen gauza, traketsa zen... Ez zegoen bat egiteko modurik. Gero ETA bera ere zatitu zen... Zaila.

Itzuli eta irakasle bizimodua egin zenuen Iruñean eta Nafarroan...

1977an etorri ginen, Amnistia legea eta gero. Euskarazko eskolak ematen hasi nintzen Iruñean, batzokian. Ez nekien askorik, baina irakatsiz batera ikasi nuen. Eta nire gisa, Oñatibiaren metodoarekin. Gero, Elizondon ere irakatsi nuen, udako ikastaro trinko batean, eta bertako eskolan, euskara ikasgai jarri zuten lehenbiziko urtean. Gogoan dut, bosgarren mailako irakasle euskaldun-euskaldun batek esan zidala: "Euskara, zertarako!?" Euskaldun peto-petoa zen! "Barru-barruraino sartu dute euskarafobia!", pentsatu nuen.

Irakaskuntzan jardun zenuen urte askoan, baina parlamentari ere izan zinen 2007an, Nafarroa Bairen aldetik.

Eta pozik, eta ohore handiz. Ez nintzen Nafarroako Parlamentuaren zalea, baina hango lehenbiziko egunean, Nafarroako ereserkia jotzen ari zirenean-eta, hunkigarria iruditu zitzaidan. Bestela, oso lan zaila da parlamentukoa –hiru aldiz egon nintzen ospitalean–, eta, bestalde, gure "iraultzaileek" emakumeoi agintzen zizkiguten lanik handienak eta zailenak. Ni, esate baterako, Hezkuntza, Osasuna eta Gizarte zerbitzuetan ari nintzen, eta ez genuen deskantsurik, tailerrak, komisioak, ikastaroak... ordu guztiak okupatuak.

Pozik izan zinela esan duzu, hala ere, ohore handia izan zenuela...

Lege proposamenen bat, edo testuren bat aurrera ateraz gero, poza!, baina oso gutxitan gertatzen zen. Edo nahi zenuena esaten zenuenean, gustura zinen! Baina etsairik handienak barruan izan ditut, koalizio barruan. Kide batzuek oso jator jokatzeko zuten, baina beste batzuek, aldiz... Behin, eskua jaso zidan kide batek, mehatxuzko keinua, eta esan nion: "Halakorik egiten badidazu, zure kontrako salaketa jarriko dut!".

Amaitzeko, noiz dugu hurrengo manifa? Ez duzu bat galtzen...

Kar, kar... Manifestari hutsa naiz, bai, baina batzuetan gauzak apropos gaizki egiten ditugula ematen du. Maiatzaren erdialdera, euskara Nafarroa osoan ofiziala izateko *manifa* egin zuen EHEk Iruñean. Ehunka lagun bildu ginen. Ni pozik, baina ekainaren 10ean, beste bat dago deituta! Hobe da *manifa* handi bat egin, bi txiki baino! Jendea ez da lehen bezala manifestatzen. Hala ere, ni bi manifestan ikusiko nauzu, maiatzekoan, eta ekainekoan. Manifestari handia naiz.

Barruraino sartu zaizu mutiko haren "Euskara zertarako!?" hura...

"Habla cristiano" ere entzunda nago ni. Elizondoko mutiko haren "Euskara zertarako!?" hori ere bai... Eskerrak orain Irulegiko eskuari. Sekulako poza hartu nuen eskua aurkitu zutenean. María Chivitek berak pozgarria zela esan behar izan zuen, ohorea zela. Baina, gero, hauteskunde kanpainan, euskararik ez PSNk. Horixe da euskarafobia, ez dira esatera ausartzen, baina hortxe dute sartuta. Ahalko balute, edozer gauza esango lukete! ●



Europako salbuespena



MIKEL ZURBANO
EKONOMIALARIA

Munduko ekonomian gertatzen ari diren aldaketa bizkor eta sakonen artean liberalismoaren urrezko aroko dogma ugariaren apurketa dago. XX. mende amaierako Washingtongo Kontsentsuan munduko Mendebaldean ezarri ziren hastapen nagusiak –estatuen interbentzio minimoa, zurruntasun fiskala, lan merkatuaren malgutasuna, merkataritza librea– kolokan jartzen ari dira azkenaldian. Klima aldaketak, digitalizazioak, pandemiaren ezta eta Txinaren ekonomi ereduaren arrakastak orain arteko globalizazio liberalaren mugak azalera ekarri ditu.

Maiatzaren azken aurreko astean G7 taldeko herrialdeek Japonian izan zuten batzarrean Txinarekiko harreman ekonomiko eta politikoetako hausturaren bidea saihestu zuten, elkarren arteko interes ekonomiko gurutzatuak tarteko. *Desakoplamentuaren* kontzeptutik Txinarekiko harremanen arriskua gutxitze-
ra makurtu dira Mendebaldeko lider nagusiak ezinbestean. Munduko ekonomia AEBetako lidergo bakarrekiko multilateralismoaren garaia amaitzen ari da. Eremu kontinentalen inguruko polo anitzak azaleratzen ari dira eta gero eta agerikoagoa da Txinak AEBetako hegemonia bakarrari egiten dion itzala. Herrien arteko lotura ekonomikoen esparru globala ez dago zalantzan, baina bai azken hamarkadetan liberalismoak Mendebaldeko herrietan ezarritako hastapen eta politikaren lerro ugari, salbuespenak salbuespen.

Polo anitzak
azaleratzen ari dira eta
gero eta agerikoagoa
da Txinak AEBetako
hegemonia bakarrari
egiten dion itzala

AEBetan Donald Trumpen garaian hasi ziren nazioarteko ekonomi politikaren lehentasunak aldatzen, eta Joe Bidenekin *segurtasun nazionalaren* kontzeptua eta klima aldaketa ekonomi estrategiaren ardatz bihurtu dira. Liberalismo ortodoxoaren zor publikoa edo zerga defizitaren gaineko kezkak albo-ratuta, *Amerika first* leloa indarrean jarrita, industri politika aktiboa, hornidura kateen garrantzia, enplegua eta teknologia erdigunean ipini dituzte.

Ekonomi politikaren ezohiko neurriak erabiltzen hasiak dira horretarako, hala nola mugasariak, dirulaguntzak eta zigorrak, eta azpimarra inbertsioan jartzen dute. Hain zuzen, Txinak hamarkadetan erabili ohi dituen tresnak eta neurriak dira horiek guztiak, ekonomi esku-hartzearen bidea lehenesten dutenak. Adibidez, klima aldaketaren aurkako borrokan hiru triloio dolar txer-

tatuko dituzte dirulaguntza gisa. Ondasun publikoaren indartzea ere aurreikusten dute, erdieroaleen eta lehengai estrategikoen kasuan, esate baterako, protekzionismoa erabilita.


Testuinguru geoestrategiko eta politiko berri honetan Europako Batasunak (EB) atzetik eta motzean aplikatzen du AEBetako ekonomi politikaren norabide aldaketa. Liberalismo ortodoxoak –Alemania eta Herbeheretako *belatzek* ordezkaturak– bere estrategia zurrinari heltzen jarraitzen dio, martxoaren 14ko Ekofinaren bileran erakutsi zuten bezala. Bertan Egonkortasun eta Hazkundearen Ituna berrezartzeko ahalegina egin zuten eta nolabaiteko konpromisoa lortu ere. Gogoan izan, itun hori dela EBn zorrotasun fiskala ezartzen duena, eta aurrekontuaren erabilera mugatzen duena –2010eko hamarkadako atzeraldian sakondu zuena– eta pandemia garaian bertan behera geratu zela egoeraren larria ikusita.

Europako Batasuna zerga arauen menpekotasunera itzuliko da 2024an, liberalismoaren munduko gotorleku bihurtuta. Ikusteko dago austeritate olde berri baten atarian gauden, baina AEBetan bezala zorra eta defizitaren kontrolaren helburua lehen lerrotik kendu ezean bere ekonomi autonomia estrategikoa eta deskarbonizazioa bigarren mailan geratzeko arriskua bistentakoa da. ●

Demokraziaren festa



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA



ANTTON OLARIAGA

Hauteskundeetara deituak izan dira azken egunotan espainiar hiritarrak, juntetxe, parlamentu edota udaletxeetako partaideak hautatzera, erakunde horiek *berriztatzen*, eta horari dira orain guztiak, analisisetan, kalkuluetan, noren esku eroriko boterea, norekin lortuko aliantzak, norekin osatuko gobernuak. Prozesuak garbi ematen du: hauteslekuetara konbokatu, gus-tuko hautagaiak hautatu, bozkatu, eta gehiengoak irabaztean prozesua, kito. Zer eragozpen aurki lekiok horri? Demokraziaren festa esaten zaio.

Euskaldunontzat, bozkatzeara ez da eman lezakeen bezain keinu inozentea edo neutroa. Ez genuke ahaztu behar gu ez garelako espainolak, espainiar okupazio-pean bizi den herri menderatua baizik, eta horrek, noski, dena aldatzen duela. Hasteko, ezin delako esan hemen demokrazia dagoenik, eta definizioz gainera. Demokrazia Herriaren boterea da, eta *herria* ez denez modu abstraktuan ulertu behar, Herri konkretuen zentzuan baizik, euskaldunon boterearen sinonimo gisa baizik ez dugu hitz hori ulertu eta erabili behar hemen. Eta horixe da gure arazoa, Frantziak eta Espainiak bahitua digutela boterea, beraiek hartu dutela, bortxaz, gure gaineko agintea.

Gainera, sistema baten demokratikotasuna neurtzeko parametroa da begiratzeara eskubide funtsezkoak zenbateraino errespetatzen diren. Autodeterminazio-eskubidea (independentzia) urratu zaigu hemen, eta horixe izanik eskubide horietan lehena, eta gainerako guztien baldintza, erregimen inperialista da daukaguna, eta beraz, ez demokratikoa. Bozkatu ahal izateak edo hauteskundeak deitze hutsak ez du sistema bat, berez, demokratiko bilakatzen. Argi dago.

Gero, noski, hauteskundeak eta hauteskundeak daude. Ez dira denak berdinak. Alde batetik, benetako boterea duten erakundeetarako hauteskundeak daude, Espainia eta Frantziako parlamentuetarakoak, alegia, horiek dira benetako parlamentu bakarrak, botere legegilea dutelako. Gainerakoek, administrazio autonomikoa-eta osatzen dutenek, botere zentral nagusi horren legeak onartzearen eta betearaztearen funtzioa baino ez dute, oro har.

Espainia eta Frantziako hauteskunde orokorretan ez dugula inoiz presente egon behar, azalpen gehiegi behar ez lukeen baieztapena iruditzen zait, espainiar konstituzioaren lehen artikulua berak dioelako populu espainiarra baino ez dela existitzen, eta mendearen hartuak

dituen gainerakoak errotik ukatzen ditu. Zer atera daiteke hor egonda, ez bada euskaldunon gaineko zapalkuntza onartzea, aitortzea, zuzitzea, eta larriena dena, sistema hori demokratikotzat jotzea eta zilegiztatzea? Horietan boikot erabatekoa eta ñabardurarik gabea egin behar da. Eta besteetan?

Garbi edukita "erakunde" horiek espainiar (edo frantziar) administrazio orokor, zentral eta kolonialaren sateliteak baino ez direla, eta benetako botere burujaberik ez dutela, kontua litzateke geure buruari galdetzea ea Herri moduan horietan parte hartzeak gure nazio-askapen helburuetan laguntzen duen ala ez. Eta tira, bai, izan liteke "erakunde" atzeritar horiek erabiltzen saiatzea gure aldarrikapen nazionalaren erresonantzia-kutxa baten moduan, zergatik ez?

Horretarako, baina, elkarrekin joan beharko genuke euskaldunok, batasun nazionalaren formulazio hutsean, Erresistentzia osatuko luketen indar demokratiko guztiek osatuta, helburu estrategiko bat eta bakarraren inguruan: independentzia nazionala, eta geure estatuen berrezarpena.

Horretatik urrun gaude, antipodetan, beste planeta batean.

Horregatik ni, bitartean, etxean. ●

Eraldaketak



INMA ERREA CLEIX
IDAZLEA ETA
ITZULTZAILEA

Kintsugi, edo *Kintsukuroi*, deitzen da zeramikazko objektuen hausturak konpontzeko teknika japoniarra. Wikipediak dioenez, errexinaz eta zilarrezko edo urrezko hautsez egiten dute. Teknikaren abiapuntu filosofikoa da hausturak eta konponketak objektuen historiaren parte direla, eta erakutsi behar direla objektuen eraldaketa age-rian uzteko. Hala tratatutako objektuek berriek baino gehiago balio dute.

Gure inguruan, garai batean, lapiko esmaltatuen ipurdiak erabileraren erabileraz zulatzen zirenean, trapu zaharrekin konpontzen ziren (estu-estu bihurriturik zuloan sartu eta hura estaltzen zuten). Arrazoa arras pragmatikoa zen: lapikoen bizitza luzatzea ahalik eta gehien (edo aldian-aldian herrietara iristen ziren ijitoek konponketa hobea eman arte). Iraupen-ekonomia.

Jende askori arraroa irudituko zaio, baina garai batean gauza gehienak (euritakoak, kasu) konpontzen ziren, zakkarrontzira bota beharrean, eta etxeak zaharberitutako objektuez beteta izaten ziren –esparatrapuz konpondutako betaurrekoen muturreko etsenplura iritsi gabe–.

Jonander Agirre Mikelez arkitektoaren artikulua batek (Eraikitzea helburu, 7K, 1270 zk., 2023/05/28) ekarri dizkit gogora hala *Kintsugi* teknika nola lapiko

zaharren behin-behineko konponketa haiek. Artikuluan, Suitzan, Basilean, ardo-biltegi bat etxebizitza-bloke bihurtzeko proiektua aipatzen du egileak: elementu batzuk kendu eta beste batzuk gordeta egindako eraldaketa, iraungitako erabilera bat beharrezkoa den beste batek ordezkatzeko.

Gizakiok trebe gara gure inguruko gauzak sortzen eta suntsitzen, eta errealitatea bihurritzen –infinituraino edo arras suntsitzeraino–. Segur aski, gure eboluzioaren gakoetako bat da espezie gisara. Gizateriak gauza berriak (objektuak, antolamenduak, planak, estrategiak...) sortzeko eta gorpuzteko gaitasun izugarria erakutsi du, onerako zein txarrerako. Gogoan dut Bilboko Guggenheim museoaren hastapenetan Txinari buruzko erakusketa erraldoian ikusitako pieza txiki bat: artelan ezin ederragorik zirudien, baina gerra-makina baten parte zen.

Gehienetan, asmazio berriak mami-tzeko baliatzen dugu sormena, gauza zahar edo akastunei iskin eginda.

Gehiagotan saiatu beharko genuke errealitateari (eta gure baitari) beste begi batzuekin so egin eta sormena kanpoan zein barruan ditugun gauza hautsiak konpontzeko erabiltzen, gauza berriak sortzen eta sortzen ibili gabe. Garai batean bezala, lapikoaren ipurdian trapu. ●

Karakoil bizitzak



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Argi dago etorkizunean ez dugula bakoitzak gure autoa ukanen. Berribila luxu bilakatuko da, eskaeraren biderkatzeak kilowattaren prezioak gora haiatuko dituelako. Nuklearrak ez ditu premia guztiak aseko, zentralak zaharkituak dira eta 70eko urteetan salatzen ziren atomoaren kutsadura arriskuak hor daude. Egoerak gure mugikortasunak berrikustera behartuko gaitu.

Badut kusina bat “gaixoa *xu*, beti oinez!” penatuaz agurtzen nauena, buhame pobre haietatik bat banintz bezala, kotxea erosteko sosik aski ez dudala uste duelako. Momentuan, ikusten da,

garraio kolektiboetan diru-baliabide gutxiko jendea dabilela, mugaren alde honetan bederen, Hegoaldean ezberdina delako. Orokorrean, auto indibidualaren dolua egitekoa dugu.

Gogoeta hauek egin ditut Euskal Elkargoak plazaratu duen Txik-Txak aplikazioari beha; autorik gabe ez gara gehiago gure denboraren jabe, ibilbidea eta jargia-kidea ez dugu hautatzen... lekutik lekura goaz kirola zapatak oinetan, tabletak ahurretan eta motxilak bizkarrean, aldi berean likido eta uher, karakoil abiadurako nomaden gisara...

Maite dut jada datorkigun garai hau. ●

Eskolarako bide seguruak?

Abusu polizialak stop!



**HAFA TAHIR ETA
AITOR ALUSTIZA**
GASTEIZKO RAMON BAJO
ESKOLAKO GURASO
ELKARTEA

Goiz atera gara gaur etxetik, behingoagatik garaiz iritsi gaitezke eskolara. 09:00ak dira Gasteizko Alde Zaharreko Fray Zacarias kalean eta Ertzaintzaren furgoneta bat pasa da Landatxo kiroldegitik. Eskolaz kanpoko ekintzetatik atera gara, arratsaldeko 18:00ak dira Alde Zaharrean eta Ertzaintzaren bi furgoneta daude Eskola kalean, bi gazte dituzte Landatxo paretaren kontra. Igandea da, Rafa plazan ohi baino haur gutxiago daude jolasean, munizipalen kotxea pasa da hirugarrenez kontrako norabidean Eskola kaletik, lau gazte daude solasean parke berriko harmailetan eta haiengana doaz poliziak dokumentazio eske. Badirudi gure seme-alabek panorama hau normaltzat jotzen dutela dagoeneko, kezkatzekoa da.

Duela hilabete atxilotu zituzten gazte txeko soinu teknikaria eta auzoko okina, bortizki biak, antza ageriko arrazoirik gabe. Horrela daude gauzak gure auzoan azken hilabeteetan, eta ez, auzo militarizatu batean ez gara seguruago bizi...

Haur txikiak eskutik zintzilik daramatzagula, patineteekin harrapaketan edo ezkutaketetan ibiltzea gustuko dutenekin gabiltzala, ez dugu segurtasun sentzaziorik poliziaz betetako kaleetan. Ez da auzo seguruagoa, larritasun egoera etengabea jartzen gaituzue, tentsio

etengabea. Eta beldurra zabaltzen dute, bizilagunen arteko beldurra. Batzuetan gelditu egin izan gara begira, eta laster etortzen da harrokeriaz ertzain bat galdezka, horrek deseroso jarriko balu bezala, benetan beharrezkoak dira hamabi polizia 17 urte inguruko gazte bi identifikatzeko?

Esan dezagun argi, gure auzoan Poliziak identifikazio eta jazarpen arrazistak egiten ditu egunero. Eta ohitu egin gara, askotan komunikabideen zalapartak hauspotuta justifikatu egiten da gazte magrebtarren kontrako ehiza bortitz hau. Trapitxeoan ibiltzen dira, diote batzuek. Badakigu hori ez dela arazoa, San Markos kantoian ez da larunbat gau batean Mateo Moraza kalean baino droga gehiago kontsumitzen. Arazoa da po-break direla, eta arrazializatuak... hori da hauspotu nahi den beldurra. Gaztea eta magrebtarra izatea delinkuentziarekin berdindu nahi dute. Eta hori... hori ez dizuegu erosten, auzo honetan hamarkadak daramatzagu bizikidetzaz auzokideon artean eraiki nahian, eta jakin badakigu auzokideon arteko beldurra dela horren etsai nagusienetako bat.

Desberdintasun sozialak areagotu ahala, gatazkak areagotzen dira, guk ere horiek bizi ditugu, ez ditugu ukatzen, ez ditugu ezkututzen. Arazoak izaten ditugu, elkarbizitza arazoak. Eta

bestelako planteamendu batzuetatik aurre egin nahi diegu, elkar ezagutzetik, elkar aitortzetik, loturak sortzetik. Halaxe ikasi dugu egiten Gasteizko Alde Zaharrean, altxorra diren bertako kale hezitzaileekin, Goianekin, auzo elkar-tearekin, norbanakoeekin... askotan ez dugu asmatu, eta berriz arazoak, berriz gatazkak. Ez ditugu formula magikoak, baina argi dugu gure kaleak seguruak izango direla elkar zaintzeko eta elkar aitortzeko gai diren bizilagunez betetzen ditugunean. Horretarako martxan jarri izan dira harrera planteamenduak, Ongi Etorri Alde Zaharrera programa, elkar laguntza sareak... eta oraindik ikasten jarraitzen dugu.

Auzoa poliziaz betetzeak, planteamendu horiek guztiak oztopatzen ditu. Bizilagun gisa Poliziaren arrazakeria eta gehiegikeriak salatu nahi ditugu. Guraso gisa ez ditugu gure haurrak beldurra eta bortizkeria nagusi diren kaleetan hezi nahi, ezta auzokideon arteko etsaitasunear ere.

Horregatik, datorren alkateari eskatu nahi diogu, arduraz joka dezan. Polizia gutxiago eta gizarte zerbitzu gehiago nahi ditugu. Arrazakeria oinarri dituzten razzia polizialak eten ditzatela berehala, eta auzoko eragileek dituzten planteamendu sozialak balioez eta finantziarioz hornitu ditzatela. ●



**HEMEN DAGO
NAFARROA**

Zigilu honen atzean, zapore on eta kalitate handi bat baino askoz gehiago dago. Klima eta paisaia paregabeak, jakinduria eta lana daude.

ReynoGourmet.com

REYNO GOURMET, NAFAR KALITATEA



BOKATAK



AKANPALEKUA

ARIZKUNGO BESTAK 2023

ARIZKUN ROCK

ekainak 23 • ortzirala • sarrera dohainik

www.arizkunrock.cus

19:00

Andoni Oilokiegi



23:00

ibil bedi
olaia
inziarte



Bines Katiko



berria

ARIZKUNGO
GAZTEAK

ahötsa

ARGIA

ARIZKUNGO
ESTANKOA

baztanet
INFORMATICA & WEB

BAZTANGO
XURIE

BERRO
BIDE

BIXTA-EDER
patxakoa • restaurazioa

BURNE
ZURGINDEGIA

DIAFERA



eskuz
BIZKUTIA



INDAUTO
TAILERRAK

IRIARTE
HAKATEGIA



KAKA
MELON

KORO ARRUTI
FARMAZIA



SOULE

MUGARKI
BIZKUTIA

serigrafia.eus

ordoki

ttipi-ttapa

Xendan



hamar ken bat



ZIBURUKO IV. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

Lagun zaharrekin elkartzen naiz bertan...

Ziburuko Euskal Liburu eta Diskoen IV. Azoka egin da ekainaren 3an, larunbatez. Inoiz baino handiagoa izan da metro, saltzaile eta bisitari kopuruari dagokionean. Eguraldia lagun, giro ederrean ospatu da euskararen festa. Aurten, gainera, estreinakoz, zuzeneko musikaz goatzeko parada izan da, baita Ziburuko ikasle gazteen lanen erakusketa bisitatzeko aukera ere.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Eguzkiak gogor jotzen zuela, karparen azpian gozo egoten zen azokaren lehen orduetan, babesean, euskara hutsezko liburu eta diskoen artean gotorturik. Makina bat postu baziren barnean, eta haietan zirin-zaran aritzea eguzkitik babesteko aitzakia baino are gehiago zen. Jakina, *deluxe* momentuak akabo esan zuen karpa bera berotu zenean, eta orduan etorri ziren komeriak. Negutegiko tomate eta piperren pare biziraun behar izan zuten saltzaile eta bisitariak, eta irribarre egin jendeari; tartean, norbaitek aipatu zuen, lehen, musukoen babespean, salbuetsita geundela irribarre egiteaz.

Ziburuko hondartzan bainua hartzea biziki ekintza plazent eta atsegina zatekeen karparen azpiko berotik ihes egiteko, baina gertuago, eskuragarriago, azokaren atarian kokaturiko oholta parera ederto heltzen zen itsasoko brisa, tamainan freskatzeko gisa, gainera. Bertsolari eta marrazkilarien bat-bateko jarduna ziren ikusgarri orduantxe; eszena bikaina, bai horixe. Eta bertan lekua hartuta, ahal bazen jaima txikiaren gerizpean, eta ai... Zeinen ederra xingar eta talo usain hura,

sudur zuloetatik barruraino sartzen zena, tripazorriak astintzeraino, zenbatek esango ote zuen. Eta ozen entzun ez bazen ere, jendea gose zela aise sumatu zuten burdinazko plantxa eta kanbor artean boluntario gisa lanean zebiltzan lagunek. Taloari laguntzeko, alboan, eztarria freskatzeko txosnako barran zerbait eskatzeko parada ere bazen. Ziur Bidasoaren beste aldeko norbaitek pentsatu zuela Seaskako ikastolen elkarteko edalontzia txikiegia zela zeukan egarri-goserako. Ez garagardo gutxi sartzen zelako, jendeak eztarria freskatu beharra zeukalako bai-zik. Edo baten bati galdetuta, biak erantzungo zituzkeen.

Bien bitartean, metro karratu horietan, muturturik zegoen haur bat baino gehiago. Nekaturik egongo ziren ziur, beroaren eragina ez ezik, goizeko lehen ordutik emozioak dezente azaleratu zituztelako *Makilakixki* haurren ikusgarrian, Ziburuko Iturri Zaharrean. Haien onena eman zuten Maddi Zubeldiak eta Bernadette Luro artistek, eta meritu handiz lortu zuten Ziburura gerturatutako etxeko txikiak kantuan saldoka jartzea.

Firin-faran aritu ziren gaztetxoak, poz-pozik; begirik ezin kendu egon ziren haur batzuk, harri eta zur, ziurrenik, Ziburuko kaleetan halako euskarazko saiorik ez dutela urtean zehar bizi izan.

Beraz, eguerdian, nolabait ere esperotakoa zen haurrek kasu gehiegirik ez egitea Mauriziaz, Iruñeko alkateaz, patriarkatuaz eta feminismoaz sortu zituzten bertsolarien koplak eta marrazkilarien irudiei. Bazen ordea, txapel lauso eta zabalaren azpitik, *Marrakatue*-ren eta Aitor Txartxerinen marrazkiei adi-adi erreparatzen ziren haurrik; ez dakigu, ordea, Maddalen Arzallusen eta Unai Iturriagaren errima eder eta bertso-biziei tankerarik antze-man ote zien. Ziurrenik, Adur Larreak publikoari erakusten zizkion bertsorako hizketagai ziren hitzetan, karteletan, zer jartzen zuen jakin gabe, beste era batera bizituko zuten *Zirriborroka* saioa. Baina berdin dio: ondo ezkontzen dira bertsoa eta marrazkia, eta gai-jartzaileak transmititzen zuen patxadak eta gertutasunak lagunduta, ikusgarri bikaina eskaini zuten eguerdiko pausaren aurretiko uneetan. Plaza dotorea osatu zuten.

LIBURU ARTEKO SOLASALDI DEMASA

Liburu eta diskoen erresuman, bien bitartean, abaniko funtzioa bete zuten ARGIAko kideek azokarako sarreran banatu zituzten esku orriek. "Babestu kazetari-tza independentea" edo "babestu eguzkitik bero-kolpeak jo baino lehen". Baina inolako dramarik ez zen jazo, ezta sortu ere. Umoreko zegoen postuetako jendea, eta eguraldiaren antzera, bero zen jendea ere. Eta gose, liburu eta disko gose.

Bisitarien zenbaketa egin zuten Baltzan elkarteko bi emazte jator eta prestuek lurraldetasunari ez zioten erreparatu, ezta nahi ere, baina haiek ere antzeman zuten, kazetari honen per-

tzepzioaren antzera, gehien goseturik zeudenak Bidasoatik iparraldera bizi direnak izan zirela gehienbat. Bistan zen Ziburuko Azoka dela eskualdeko aukera bakanetakoa euskarazko liburuak eskuratzeko. Beste aukera Baionako Elkar denda da, edo Ortzaizeko Menta kafe liburu denda; ez da beste parada finkorik hiru lurralde biltzen dituen Euskal Herrian. Premia horri erantzuteko sortu zen Ziburuko Azoka, eta agerian geratu da laugarrenez jendeak duen beharra.

Azokak, egun batez bada ere, asetzen duen beste premia da argitaletxe, kultura eta sortzaileen arteko topaketa, are behar handiagoz ase ere Bidasoaren alde bietako jendearena. Luzien Etxe-

zaharretak zioen goizeko mahai inguruan badirudiela Bidaso zabaltzen ari dela, alegia, urrunago bageunde gisa sentitzen dugula elkar, eta ez lukeela hala izan behar. Horretarako ere balio dezala, beraz, halako elkarguneak. Eta arazoari aurre nola egin hausnartzeko ere bai, egun bakarreko arnasaldiko satisfazioan gera baino.

Halako azoka eta elkarguneetan, aspaldiko lagunak giza-topaketa trafikoz zinez handia bizi izaten da. Hau da, zalan-tza izpirik gabe, hainbat jenderen arteko "zenbat denbora ikusi gabe", "zertan dabilzazu" eta antzerakoien kontaktetan, ratioetan, Ziburuko Azoka oso maila altuan dago -EHZ festibala ere ez da



Eli Pagola eta Maitane Gartzandiak liburuaz mintzatu ziren estreinakoz jendaurrean.

'No!' komikia

ARGIAren azken liburua inpretatik irten eta hiru egun eskasera heldu da haren lehendabiziko azoka, eta postutxoan izan ditu dezente salmenta, komiki formatuari gustua hartzen ari baitzaio euskal irakurlea. Bertsolaritza eta feminismoa gai gisa jarrita, gainera, are gusturago irakurtzen da.

Eli Pagolak eta Maitane Gartzandiak aurkeztu zuten liburua karpa txikian, dozenaka lagun eta ezagunen aurrean. "Botere harremanak eta genero talkak" aztergai dituztela nabarmendu zuen Pagolak, eta Gartzandiak, berriz, "tono koloretsuak behar dituen auziak" direla azpimarratu.

'Nostalgia ez da salgai' liburua

Xan Idiart idazle gaztearen bigarren liburua udaberrian argitaratu du *Maiatz* argitaletxeak, eta editorea bera ere, Luzien Etxezaharreta, batu da solasera.

Umoretik, umore beltzetik, ironiatik egindako ipuin sorta da. "Ipuin absurduak" Idiarteren arabera, loturarik ez dutelako haien artean. Hainbat pertsonairen bitartez, euskalduntasunaren zenbait perfil harilkatzen ditu liburuan.

Euskara batua darabil liburuan idazle garaztarrak, euskara bera 15 urterekin berreskuratu zuelako, eta horregatik uste du eutsi diola batuari.



Xan Idiart, Luzien Etxezaharretak lagunduta, liburua aurkezten karpa txikian.

atzean geratzen, eta Durangoko Azokan, kantitatez gehiago bai, baina masiboegia da solasaldiak luze eta ganorazkoak gertatzeko-. Alegia, kultur munduko jende baten topaketetarako zita egonkor bilakatu dela jada Ziburu. Eta Ziburun, asko eta fuere pentsatzen duen jendea batzen da, hala nabaritzen eta usaintzen da giroan. Guztia txikiagoa izanik, ikusteko errazagoa da, eta ez da zoria behar, ez baita zerbait puntuala. Liburu eta diskoetatik burua apur bat altxatu, ingurura begiratu, eta ustea baieztatzen da karparako sarrerako pare horretan Koldo Izagirre, Joseba Sarrionandia eta Pello Zubiria solasean direla aurkitzean. Eta halako adibideak, mila.

Lehen edizioan hamasei argitaletxek jarri zuten salmenta puntua; laugarren edizioan 36 izan dira

Jendea *desbirtualizatzeko* ere balio dute halako elkargunek. Bateko *email*, besteko mezu eta hainbat telefono dei tarteko, inoiz aurrez aurre ikusi gabeko

horri edo horiei aurpegia jartzeko parada eskaintzen du Ziburuko Azokak, eta agurtzeko bi musu, besarkada eta besoa mimoz ukitzeko aukera ere bai. Halako topaketek ere balio dute besteen berri izateko, ez-dakit-nork ez-dakit-zer egingo duela ez-dakit-noiz eta halako kontuez jabetzeko. Iragarpenak dira, asmoen iragarpenak bederen, harremanari eta afinitateari bide emateko aitzakia ere bai.

Salerosketaren ikuspegi kapitalista eta kontsumitzaile ororen gainetik, elkargune ere bada azoka, bistan da. Bidasoaren alde bietako jendea batzeko aitzakia, Bidasoaren zabalera murrizteko motiboa, eta arnas une bat ematekoa arnasgunerik apenas duten horientzat.



Maryse Urruty antzerkilariak, bazkalosteko lehenbiziko ekitaldian, algarak eragin zizkion publikoari.

"Nire lagun Mark"

"Baltsan Elkarrekin norabide aldaketa baterako aholkuak emateko eskatu zidan, eta hona nator azalpenak ematera". Hori esanez abiatu zuen umorezko saioa Maryse Urruty autore eta antzerkilariak, bazkalosteko logaleari eusteko lan franko zuen publikoaren aurrean. Baina irri dezente egin zen azkenerako. Izan ere, ikuspegi oso komertzialarekin, perfil kapitalista sutsuan, euskarazko kulturgintzari hauspoa eman behar zaiola argudiatu zuen Urrutyk. Umorez, jakina.

Funtsean, "euskal *business-a*" sortu behar dugula esan zuen Urrutyk. Eta hori nola egin, pausoz pauso, honela aletu zuen, helburua *best seller*-ak egitea

delako. Lehenik eta behin, euskal idazlea kanpora bidali behar da –Kirmen Uribe adibide ona da; Joseba Sarrionandiarena ere bai, eta bistan da, Euskal Herrira itzuli denetik ez duela ezer argitaratu-. Ondoren, gaia hautatu: kontu tradizional eta historikoek xarma dutela bai, baina drama erromantikoak ere sartu behar dira, sexua tarteko.

"Lagunok, *open your mind*". Bere lagun Mark-ek (Zuckerberg) emandako gomendioak ziren.

Ordu laurden pasatxoko umorezko saioan, oso zorrotz eta labankadak bata bestearen atzetik jaurtita, algaraka utzi zuen publikoa Urrutyk.

“ ”

*Argitaratzen ditugun gauzak
oso sinpleak baldin badira,
euskal literatura are sinpleagoa izango da*

2022an 40 urte bete ditu *Maiatz*-ek aldizkari gisa hasi zela, eta datorren urtean 40 urte beteko ditu argitaletxe izaera ere badiela. Luzien Etxezaharretak, *Maiatz*-ekin ez ezik, euskal letretan egindako lanaren aitortza jaso du azokaren irekiera ekitaldian, eta omenaldia amaitu orduko, Leire Lopez Ziluaga Susa argitaletxeko editorea batu zaio oholtza gainera.

Biak ala biak argitaletxe txikiak dira, baina alde nabarmena markatzen duena, enpresa ikuspegitik, zera da: *Maiatz*-ek ezin izan duela inoiz inor soldatapean eduki. “Hori bada nirekiko diferentzia handi bat”, esan du Lopezek, baina aldi berean aitortu du kontraesan iraunkor batean murgildurik ikusten duela bere burua: “Hilabete bukaeran kobratu egiten dut, soldata bat dut; aldiz, argitaratzen duten idazleek liburu bakoitzagatik kopuru jakin bat kobratzen dute, eta argi esanda, ezin dira literatura egitetik bizi”.

IDAZTEKO FORMA BERRIAK

Besteren artean, mahaiaren inguruan jorratu duten gaietako bat izan da gaur egun egiten den euskal literaturaren kalitatea eta bilakaera. Etxezaharretak, adibide konkreturik jarri gabe, nabarmendu du euskara batuaren aldeko joera nagusitu dela azken urteotan, Bidasoatik iparraldera bereziki, eta ez dela lehen bezala euskalkia erabiltzen: “Denek formatu berdintsua darabiltela esango nuke, gazteen kultura unibertsalizatu balitz bezala, eta, uste dut, ez dela beti onerako izan. Espresioan, esaterako, galdu egin da”.

Lopezek zehaztu du “konplikatu” egiten zaiola idazleari nola idatzi esatea, baina, era berean, ados agertu da editoreek literaturaren ekoizpenean duten eraginaz Etxezaharretak esan-



Leire Lopez Ziluaga eta Luzien Etxezaharreta, Susa eta Maiatz argitaletxetako editoreak, Zubiburu mahai inguruan.

“ ”

*Hegoaldean gutxi
erosten dira Iparraldeko
liburuak, uste baita
ezingo dutela ulertu
frantsesez zikindutako
euskara; alderantziz ere
gertatzen da*

Etxezaharreta

dakoarekin. Horrez gain, nabarmendu du, argitalpen sinpleek euskal literaturaren beraren sinpletzea ekarriko luketela, eta alderantziz ere bai.

LURRALDE TASUNAREN AFERA

Lopezek sarri erreparatzen dio Susaren argitalpenen zerrendari, eta honela eman du horren berri: “Ipar Euskal Herriko idazle oso gutxi argitaratzen ditut, arabarrak gutxi, nafarrak gehiago, bizkaitarrak ere gehiago eta gehienak gipuzkoarrak”. Zentzu horretan, uste du edukia sortzen eta argitaratzen dituenak sortzen dituela literatur ereduak, eta, finean, idazle horiek markatzen dutela liburuak egitura aldetik konplexuak izan ala ez, eta hiztegiaren kasuan ere berdin.

Etxezaharretak gustuz heldu dio lurraldetasunaren gaiari, kezka begiratzen duen afera delako: “Bidasoa zabaltzen ari da batzuetan, gure artean elkarlan gutxi egiten dugu. Gure errealitatea da Hegoaldean gutxi erosten direla Iparraldeko liburuak, ustea baitute ezingo dutela ulertu frantsesez blaitutako euskara. Eta Iparraldean berdin, euskara-espainol hori ez dela ulertuko uste da”.

“ ”

“Zuberotik Lapurdi kostalderaino sorkuntza indartsu dago”

Luzien Etxezaharreta

Luzien Etxezaharretak (Hazparne, 1946) Ziburuko Azokaren aitortza jaso du azokaren IV. edizioan, herriko plazan. Kazetari, idazle eta editore gisa lan ugari egindakoa da eta, besteak beste, *Maiatz* aldizkariko arima izan da azken 40 urtez.

 XABIER LETONA BITERI  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA



Ziburuko Azokaren IV. edizioak zuri egin dizu aitortza. Ez zara izan zure lanei, zeure buruari oihartzun handirik ematekoa. Nola sentitzen zara?

Halako aitortza bat egiteak esan nahi du urte asko dituzula, baina nik alde

ona hartuko dut: euskararen alde egingdako aitortza bat gisa jaso dut. Euskararen langile naiz eta pozik hartzen dut aitortza. Iparraldean urtez urte lan handia egiten da bere hizkuntzaren begiratzeko, eta horren guztiaren sostengu gisa ere hartzen dut nik.

Sentimenduak askatzeko balio die askori literaturak. Zuri zertarako balio dizu?

Literaturan sentimenduak asko baliatzen dira. Sentimenduaren agertzea jendeari sentiaraztea da. Idazlea da arte langile bat eta hitza baliatzen du zerbait adierazteko.

Narrazioa, poesia, kronika eta bilduma, denetatik jorratu duzu. Eta kazetaritza. Zein generorekin gelditzen zara?

Kazetaritzak eta irratiko lanak asko hunkitu nau. Jendearekin hitz egiteak ematen dizu lotura handia zure sorterriarekin, eta hori sentitu dut gehienik. Beste genero guztiak espre-sa-bideak dira eta izaeraren arabera hautatzen dira. Norberaren bizitzak ere eragin handia du egiten duenarekin. Idaztea lan handia da, jarraikortasuna eskatzen du eta nik biziki maite izan dut hitzekin munduaren kontatzea. Kronikak, irratia emankizunak, elkarrizketak... horrek lotura handia ematen dio idazle eta sortzaileari bere herriarekin.

"Nor dabil euskaraz idazten Ipar Euskal Herrian?", galdetu zenioten zuen buruei duela 40 urte *Maiatz* aldizkariaren hastapenetan. Nor zebilen?

Pierre Lafite apaiz idazleak aipatzen zuen 300 idazle eta 300 irakurle zeudela orduan Euskal Herrian. Duela 40 urte asko aldatu zen Ipar Euskal Herria, eta eskolan eta unibertsitatean zebilen jendearekin belaunaldi berri bat sortu zen. Frantzia ezkerre sartu zen gobernuan. Eta abertzaletasuna eta euskaltzaletasuna ere lotuak izan ziren. Euskal mundu geldia aspergarri zitzaigun, munduan eta sozietatean aldaketa handiak gertatzen ari ziren eta hemen ere eman ziren aldaketak: feminismoa, ingurumena, burujabetasuna... Hitzaz hartzea garrantzitsua bihurtu zen eta, gaur egun ere, geroari begira motor handia izango dela uste dut, jendarte horrela kanbiatu behar da eta. Ni irratigintza sortzaile berri hartan murgildua nintzen eta pasio handiz bizi nuen herritarrekin, euskararekin, Euskal Herriarekin etorkizunari begira.

Nola dira *Maiatz* eramateko lekukoak?

Beti bezala, haurrek gurasoen lekukoa hartzen dute. Edozein jendartetan ikusten da nola belaunaldi batek kritikatzeko dituen berritasun eskasak. Hala ere, ez dakit gure lekukoak nolakoak izango diren. Gurean dena dohainik egiten dugunak ari gara, ditugun diru-laguntzak gure aurrekontuaren zati txiki bat besterik ez dira. Gure kemena eta nahikeriarekin bizi da *Maiatz* eta ondokoek ere, Euskal Herriak bezala, euskararen maitaleekin eta bere herria maite dutenekin kontatu beharko dute.

Zeuk esana da: "Ez dut etsitu nahi, nahiz denak erakusten didan etsigarria dela mundu hau". Horrela jarraitzen du munduak?

Ez. Etsigarria da so-egile baten bezala geldirik egoten bazara. Ipar Euskal Herrian jendeak hitza hartzen du, ekin-tzak egiten ditu, gazteek gauza asko sortzen dituzte... Etsipenak ez du deus onik ekartzen. Bizi gareino, elkartasuna badagoeino, esperantza handi bat bada gure artean. Ez dut horren zalantzarik, baina munduko etsipen hori ere hor da, bortizkeria, gerrak, miseria... horiek ere konponbidea behar dute. Han eta hemen irtenbidea elkartasunean da.

Eta gure bazterrak, nola daude 2023ko honetan?



“”

"Etsipenak ez du deus onik ekartzen. Bizi gareino, elkartasuna badagoeino, esperantza handi bat bada gure artean"

Apaltasunez hitz egin behar da. Errealitatea ez da inoiz ongi ikusten. Garai honetan, datu ekonomikoek lehentasun faltasua dute mundu mailan. Iparraldean apustu handiak dira, baina indarrak ere bai. Hirigintza basa bat sortzen ari da kostaldean, baina husten ari zen barnealdea orain indartzen ari da nekazari berriekin, eta hori ingurumenari eta bizi berri bati begira oso esperantzagarria da. Zuberotik Lapurdi kostalderaino sorkuntza indartsu dela ikusten da. Kultura

eragile indartsua da gauzen aurreratze-ko, baita politikan eta ekonomian ere. Ez da beldurtzerik. Gogoetatu behar da nola bizi eta nola gureganatzen ahal ditugun apustu handi horiek. Hala ere, mundua lehendabizi norberaren inguruan kanbiatzen da, eta elkartasuna da burujabetzaren oinarria.

Ziburuko Azokaren IV. edizioa egin berri da. Nola ikusten duzu bere garapena?

Baltsan elkarteak apustu handia egin du eta premiazkoa da euskarak bere bizi-guneak izatea, batez ere kostalde honetan. Ziburu eta Donibane Lohizunek toki handia hartu dute euskal literaturaren historian eta Baltsan lekukoa hartzeko saioa egiten ari da. Hori zoriontzekoa da. Azoka euskararen eguna da, eta horrekin batera, irakurleekin, editoreekin, idazleekin eta, oro har, euskaltzaleekin harremanak indartzeko eguna. Iparraldeak badu indarra, eta euskara hemen sortzaile eta indartsu dela erakusten du. Zorionak! ●

Kelo Arribas Miranda, Nerea Arrizabalaga Badiola eta Joxerramon Arrieta Zialtzeta "Exkerra"

Egurra Ta Kandela ekimeneko kideak

"Etorkizuneko janaria lurrari lotua izango da, edo ez da izango"

Food For Future kongresua egin dute maiatzean BECen, "elikagaien industriako berrikuntza teknologikoak" erakusteko. Aztik ingeles hutsean antolatu duen "negozio plataforma" horretan elikagai sintetikoak eta 3D inprimagailuak egon dira ikusgai. Bezperetan, baserriar txiki batzuek BEC aurrean elkarretaratzeko deia egin zuten. Hauengana jo dugu, etorkizuneko janariaz galdezka.

 **ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA**  **IRANTZU PASTOR**

Azpeitiko Sakona baserrian elkartu gara hiru kide hauekin: ezkerretik eskuinera, Kelo Arribas, Nerea Arrizabalaga eta Joxerramon Arrieta "Exkerra".



Adierazpena atera zenutenean izan genuen lehen aldiz "Egurra Ta Kandela" ekimenaren berri. Nortzuk osatzen duzue eta zertarako sortu da?

Kelo Arribas: Laborantza ekologikoko elkarteak da Biolur eta bertako kideak gara batu garen guztiok. Baserritar txiki eta agroekologiako langile gisa ez genuen gure ahotsa ordezkatuta ikusten, batez ere Gipuzkoan. Faltan ikusten genuen erakunde bat, antolatzeko eta gure erantzunak bideratzeko.

Zortzi lagun batzen ari gara, hamabostean behin. Sindikatu beharra planteatu dugu, baina pausoz pauso lortu behar dela ikusten dugu. Hausnartzeari eta ekintza batzuk planteatzeari ekin diogu, ortzimugan sindikatua izanik.

Exkerra: Gauzen aurrean gure ikuspegia elkarrekin lantzeari ekin diogu. Food For Future bezalakoen aurrean erantzun bat eman nahi dugu: gure ekintzek gutaz hitz egiten dute eta ekintza horien bidez hitz egiten dugu guk.

Nerea Arrizabalaga: Baserritar txikiak gara, beste erritmo batean bizi garenak, naturaren erritmoarekin batuago. Mundua ikusteko beste ikuspegi bat dauka: soilagoa, gure ekoizpena ezagutzen dugu bertan lan egiten duten pertsonen neurrikoa delako, gertutasuna dugu gure produktuak kontsumitzen dituztekin...

Exkerra: Denok zuzeneko salmenta egiten dugu, ez dugu supermerkatuetan saltzen ez bitartekari handiei, beste baserri eredu bat lantzen ari gara...

N. Arrizabalaga: Baina kokatuta gauden sisteman beste gauza batzuk bultzatzen dira: makroekoizpena, makroproiektuak, Food For Future bezalako foroak... hori guztia gizarteratu nahi dugu.

K. Arribas: Askotan, beste eragile batzuek hitz egiten dute baserritarren ize-nean, adibidez, elikadura burujabetzaz. Eta hori ongi dago, borondate onenarekin egiten dute eta askotan guk baino hobeto. Baina langile bezala baserritarren artean elkarlana sortu behar dugu, eta antolaketa, gure ahotsa gizarteratzeko.

Zergatik erabaki zenuten Food For Futureri aurre egitea?

N. Arrizabalaga: Izenak berak esaten du, etorkizuneko janaria hori omen da. Eta gu non gaude? Gu gara gaur egungo janaria eta etorkizuneko ere izango gara. Gure ereduak da zabaldu beharko litzatekeena, horrela ez genuke janari



Nerea Arrizabalaga: "Food For Future ez dago animaliarik, ez dago baserritarrik..."

Nola liteke horrelako foro bat deitzea, janaria ekoizten dugunok kontuan hartu gabe?!"

Aztik antolatutako Food For Future kongresuaren kartela ikus daiteke goian, eta honi erantzunez BEC aurrean laborariek egin zuten elkarretaratzea aspian.

"3D pobreentzako janaria izango da"



"Agroekologia da modu bakarra panorama honi aurre egiteko: klima aldaketa, energiaren agortzea..."



faltarik izango, nahiz eta Ukrainan gerra izan edo mugetan arantzelak jarri. Beraiek aurkakoa saltzen dute: etorkizuneko janaria artifiziale izango dela, ez dakiguna oso ongi nondik datorren, in-tsumo pila bat beharko dituen, energia

pila bat kontsumituko duena...

Exkerra: Agintariak eta multinazional horien interesak ez doaz herritarren beharrik asetzera, ezta baserritarren bizimodua erraztera ere. Horren aurrean, egiteko beste modu bat badagoela adieraztea da gure nahia.

K. Arribas: Eusko Jaurlaritzarena oso bide motza da. Gauden krisi ekologiko eta sozialean, denok dakigu eredu al-daketa behar dugula. Etorkizuneko janaria lurrari lotua izango da, edo ez da izango. Bide bakarra agroekologia da eta hori ez dugu guk esaten, Nazio Batuen Elikadura eta Nekazaritza Erakundeak esaten du. Hori da modu bakarra jendea elikatzeke.

N. Arrizabalaga: Ingurua guztiz suntsitu gabe.

Exkerra: Lurra martxan iraunarazteko. Edo gu Lurraren barruan.

K. Arribas: Modu bakarra panorama berri honi aurre egiteko: klima aldaketa, energiaren agortzea, gerren sistema...

Harrigarria da Food For Future ez dagoela inolako baserritarrik.

N. Arrizabalaga: Ez dago animaliarik, ez dago baserritarrik... Nola liteke horrelako foro bat deitzea, janaria ekoizten dugunok kontuan hartu gabe?!

K. Arribas: Bittor Oroz Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordeak esan zuen Euskal Herrian ez dagoela gaitasunik herritarrak elikatzeke. Horretan ados, baina egin apustu jendea elikatzeke lurretik, ez 3D inprimagailuetatik. Horretarako gaude baserritarrok, eta elikagaiak sortzen ditugunok gehiago izan gaitezke, berak ere bidea errazten badu eta jendeari laguntzen badio. Hain justu bere esku dago behar beste ekoiztu ahal izatea.

N. Arrizabalaga: Euskal Herrian daukagun lurrekin, Orozi lotsa eman behar lioke elikatzeke ez garela gai esateak. Noski, gaur egun kontsumitzen dugunaren %3-4 soilik da hemen ekoizten dena. Bada, bultzatu hemengo ekoizpena! Egun administrazioaren presioa da guretzat pisurik handiena. Lurrak eskuratu ditugunok eta martxan gaude-nok itotzen gaituzte izan ticketbai, izan exigentziak, izan kontrolak... horrek pisu handi bat jartzen digu gure lanaz gain, eta pentsa sartu berria den batentzat! Lurra gero eta artifizializatuago dago, lurra lortzea ia ezinezkoa da...

Exkerra: Eta ez utzi komertzializatzaile handi horien eskuetan. Baserritarra estutzen dute bere oinarritzko beharrek, zereala edo pentsuak direla, argindarra dela, gasoila dela... horiek prezio finkoa dute, baserritarrek ezin dute erabaki, eta berak ekoizten duenari, adibidez esnari edo okelari, bestek jartzen diote prezioa. Hor estutzen gaituzte, eta ondorioz ez dago ekoizlerik, normal, nor hasiko da ekoizten? Ez dago erreleborik.

N. Arrizabalaga: Azken urteetan bultzatu duten tamaina handiko etxalde horiek txikiagotzeko prozesuan ere asko lagundu dezakete erakundeek, akonpainamendu handia egin dezakete eta ez dute ezer egiten.

3D inprimagailuetan ekoiztutako haragi sintetikoaz zer diozue?

K. Arribas: Proteina krisiaren diskurtsoarekin jokutzen dute, hori 3Dko makina batek konponduko duela esateko. Zer, berriz ere multinazional baten esku utzita?

Exkerra: Euskal Herriko gizartea justu proteinaz gainezka dago.



“Egun administrazioaren presioa da guretzat pisurik handiena: ticketbai, exigentziak, kontrolak...”



“Agroekologia zabalduko balitz ez genuke janari faltarik izango, nahiz eta Ukrainan gerra izan”



N. Arrizabalaga: Baina jendeari buruan sartzen diote ideia hori, behin eta berriz errepikatuta. Su baju lanetan doaz 3D janariaren kontu hori, normalizatu eta jendeak probatu arte, eta etorkizuna hori dela sinesteko.

Exkerra: Elikadura birpentsatu beharreko gai bat da. Proteina gehiegi jaten dugu. Gure aurrekoek astean behin jaten zuten okela, eta arraina hilabeteetan behin. Jende bat euro bat baino gutxiagorekin elikatzen da: saltxitxa horiek euro bat azpitik erosteko, supermerkatu plastiko horretan bilduta iritsi direnerako... agian hobe da hori ez jan eta garbantzuak edo lentejak janda.

N. Arrizabalaga: Gure buruan egunero haragia jateak dakar estatusa, eta ezin badugu kalitate maila onekoa erosi, kalitatea jaisten dugu, astean behin edo bitan kalitate onekoa erosi eta beste

egunetan lekaleak jan beharrean.

K. Arribas: 3D pobreentzako janaria izango da. Zeren dirua duenak beti nahiago izango du benetako txuleta.

N. Arrizabalaga: Baina 3D haragia ez zuten honela aurkeztu: lehenik esan zuten oso garestia dela ekoiztea eta bazi-rudien eliteentzako izango zela. Baina Iraken egunean bi tona ekoizteko pres-tatu dira jada eta jende xumeagoarena izango da.

Exkerra: Bada haragi sintetikoa interesgarri ikusten duen beste korrante bat, beganoena.

N. Arrizabalaga: Kontraesankorra izan daiteke, beganoek ez tirik ere ez dute hartzen erleek ekoiztua delako, eta haragi sintetikoa egiteko ama zelulak ez dakit bizidun kontsideratu daitezkeen... Nondik datoz edo zerekin elikatzen dituzte zelula horiek?

Energia berriztagarrien makroproiektuek landa eremura jo dute...

Exkerra: Badatoz lehenik bazter guztiak txikitu dituzten horiek beraiek soluzioa eurak direla saltzera. Hori beraientzako soluzioa da, dirua egiten jarraitzeko sistema, lurak okupatuta. Orain lurak multinazional horiei ematen badizkiegu, elikatzeke lurrik gabe gara.

N. Arrizabalaga: Dena da negozio.

Exkerra: Ulertzen dut energia berriztagarriak beharko direla, baina lehenik AHT gelditu dezatela: utzi horretan dirua eta energia gastatzeari. Artifizializatutako eremuekin bakarrik ez omen dugu behar beste energia aterako, baina oraindik lur horien ehuneko oso txiki

batean jarri dira eguzki plakak, eta jandak bagoaz soro eta belardien bila. Badago non eginga herrietan, industria-guneetan, eta gero gehiago behar bada, hitz egingo dugu.

K. Arribas: Hau beste negozio bat da, ez konponbidea. Berriztagarriekin elektrizitatea sortzen dute eta elektrizitatea energia kontsumoaren zati txiki bat da. Kontsumo nagusia gasoila da eta ez dugu horri begiratu nahi. Zergatik? Horrek eredu aldaketa eskatzen duelako eta ez dugu nahi. Hau adabaki bat da, ezertarako balio ez duena, batez ere multinazionalen negozioa egiteko eta politikariei diskurtsoa emateko, "konpontzen ari gara" esan dezaten. Eta ez da sinesgarria, datuak oso argi daude. Horregatik, oso ikuspegi motza da, baina denok jaten dugu diskurtso hori. Okerrena da orain gure lurak jokoan daudela.

N. Arrizabalaga: Iruditzen zait dependentzia sorrarazi nahi digutela. Ez badugu lurrik elikagaiak ekoizteko, beraiek erabakiko dute zerekin elikatuko garen, ez digutelako beste aukerarik utziko. 3D janaria ipintzen badizute beste ezer ez daukazunean... badirudi koskaz koska horra eraman nahi gaituztela.

Exkerra: Burujabetza izateko tresnak izateak ematen dizu indarra eta zeure buruan konfiantza. Multinazionalen eta Food For Future bezalako ebentoei ez zaie interesatzen horrelakorik, hortik ez dutelako negozioa egiten: agroekologia da irtenbide bakarra baina herri bakoitzak bere luraren eta bere janariaren kudeaketa egiten badu, ez dago negozioa,

"Dependentzia sorrarazi nahi digute. Ez badugu lurrik elikagaiak ekoizteko, beraiek erabakiko dute zerekin elikatuko garen"



"Proteina gehiegi jaten dugu. Gure aurrekoek astean behin jaten zuten okela eta arraina hilabetea behin"



ez dago bolumen handirik, geure artean geratzen da ondasuna.

N. Arrizabalaga: "Hirugarren mundu" deitzen diogun herrialde horiek bezala bihurtzen gara, Norbegiako enpresa batek esplotatuko ditu hemengo eolikoak eta dirua berak eramango du, eguzki plakekin antzera, gainera ezingo dugu gure janaria ekoiztu... Afrikako lurak etorri zaizkit gogora, herrialde aberatsok esplotatzen duguna...

Exkerra: Kolonialismoa da. Nekazal lurretara etortzen dira, dirua dute edo okerrago dena: ez dute dirurik, gero izan litekeen diruarekin ari dira gauzak egi-

ten. Hipotekatzen ari dira, ez eurak, hurrengo belaunaldiak baizik, erraustegia-ekin egin duten bezalaxe. Gaietan gero eta zama handiagoa hartzen ari gara, eta gero nork hartuko du horren ardura? Ezere ardurarik ez daukate.

K. Arribas: Hiriaren kolonialismoa ere badago landa eremuan: Euskal Herrian herritarren %90 bizi da lurraldearen %10ean. Hiriak ezin du landa gehiago suntsitu, aski da landa kolonizazioa egiteaz! Jarri itzazue aerosorgailuak Kontxan! Han dago kontsumoa, utzi bakean mendia, bertan bizi garenak justu beste eredu batean ari gara, ez dugu hainbeste energia behar. Gizarteak kritiko izan behar du eta bere kontsumoaren jabe egin behar du.

Kalea eta mendiaren arteko harremana ahulduta dago?

Exkerra: Nik ez dut kaletar eta baserriaren dikotomia ongi eramaten. Kalean egoteko moduak eta baserrian egoteko moduak daude. Denean dago gauzak kontziente eta ongi egiten ari den jendea eta denean dago hala moduz eta egoismo hutsez egiten ari dena. Baserri munduan ere horretatik asko dago.

Baserrietan eta landa eremuetan jende beharra dago. Gu bizi garen zonaldean, dozena bat baserri daude bueltan eta soilik bi etxetan bizi gara. Gure kasuan, errelebo bila hasi beharrean gaude eta segur aski askoz erakargarriago litzateke gure seme-alabentzat edo kanpotik datorren batentzat, inguruan bere moduko batzuk baleude pozak, nekeak eta biziak konpar-

Donostian zabalduko duten Biotech Foods haragi sintetiko enpresaren sozio nagusia Brasilgo ustelkeriarekin lotua

Biotech Foods-ek laborategiko haragiaren Europako lehenengotako fabrika irekiko du Donostian, 2024an. Eskusaitzeta poligonoan 11.000 metro koadroko lantegia egingo dute. Enpresak azaldu duenez, abereei biopsia eginda giharretako zelulak hartzen dituzte eta altzairu inoxidableko tankeetan

elikatzen dituzte hazi daitezen. Haragi sintetiko hau ondoren elikagai prozesatzaileei salduko diete.

EHNE sindikatuak *Etxalde* aldizkarian jakitera eman duenez, Biotech Foodsen akziodun nagusia Brasilgo JBS enpresa da: 36 milioi euro inbertitu ditu 2021ean, kapital anpliazioa estaliz. JBSko zuzendari eta administrazio kontseiluetako kide ohiek onartua dute Brasilgo 28 alderditako 1.800 politikari sobornatu zituztela eta azken 15

urteetan 180 milioi dolar erabili zituztela horretan. JBS munduko haragi ekoizlerik handiena da.

Kelo Arribas: "Inori ez zaio aurpegia lotsagorritzen, baserriarrak kanpoan utzi eta horrelako jendeei lekua egin zaielako BECen, Food For Future kongresuan".

Ustelkeria kasu hau dela-eta, Norbegiako Pentsio Funtsak JBS enpresaren akziodun izateari utzi dio.



titzeko. Hutsik dauden baserri horien ja-beak gure moduko jendea dira, eta haien asmoa ahalik garestien saltzea da.

N. Arrizabalaga: Kontsumitzaile gisa, bere janaria non erosten edo bilatzen duenari begiratuta, baserritik oso urrun dago orokorrean jendea. Jende edade-tuagoa baserrian jaio da edo gertu dauka, baina gazte jendea eta umeak ez: eskolak bisitan etortzen zaizkigu eta patatak lurrazpian daudelako harritzen dira, edo leka ikusi eta ez dute ilarrekin identifika-tzen. Horrek zer pentsa eta ardura ematen du.

K. Arribas: Urrun xamar ikusten dut nik ere. Denborarekin pauso batzuk eman dira, kontzientzia gehiago dago, baina asko falta zaigu. Halako krisiek batzuei zer pentsa ematen diete: gure janaria Ukrainaren menpe dago? Bolada batez jendea janariaz kezkatuta eta haziez ikas-teko gogoz nabaritu nuen, baina jada pasatu da. Ukrainako gerra hasi zenean batzuek gerra nuklearraren kezka izan zuten eta gure haziak egin, gorde eta bar-tzea egiteko erreflexua izan zuten. Oso gutxi dira halakoak, baina agian gero eta gehiago dira, krisia gero eta jende gehia-gorengana iristen delako. Eredu aldaketa-ren bila ari dira.

Badator ezinbestean eredu aldaketa, baina "azken buelta bat" dugu oporretako amets...

Exkerra: Begiradaren norabidea alda-tzea da gakoa. Pertsonaren beharrak oso sinpleak dira eta egun, horiek dira balio

"Bere janaria non erosten edo bilatzen duenari begiratuta, baserritik oso urrun dago jendea"



"Begiradaren norabidea aldatzea da gakoa. Pertsonaren beharrak oso sinpleak dira eta egun, horiek dira balio gutxien dutenak"



gutxien dutenak. Oinarrizko horietara jo beharko genuke eta uste dut baserriak hor baduela bere lekua, bere egiteko modua. Gizarte bezala badakigu gauza batzuk norabide onean egiten. Hor jarri beharko genuke indarra.

K. Arribas: Prestatu egin behar gara aldaketarako. Nola? Elkar zaindus, elikadura burujabetza landuz eta autosu-fizientziaz ikasiz, ez izateko menpekota-sunik, ez multinazionalena, ez armena, ez gobernuena.

N. Arrizabalaga: Jendeak ez du orain

arteko bizi erritmoa utzi nahi, ez gara prestatzen ari. Eta kurioa da, hain justu burujabetza ikuspegitik aurrera jarraitzeko erremintatxo bat dugunok gara aldagaterekin kezkatuen gaudenak, badatorrela ikusten dugunak. Zenbat eta beranduago ekin, orduan eta aldaketa bortitzagoa izango da.

Prezio igoera bai, baina elikagai krisia ez da hizketagai kalean.

Exkerra: Adibide bat jartzeko, ardiei ematen diegun zereal dena ingurutik ekartzen ahalegintzen gara eta badirudi inguruko zerealik ez dela apenas izango eta dagoena oso garestia izango dela. Lehortearen ondorioa da. Guri horrek eragingo digu, seguru.

K. Arribas: 2008ko krisiaren eraginez Afrikan elikadura krisi oso gogorra egon zen eta jende askok esaten zuen erne ibili beharra zegoela, gu ere dependenteak garelako. Beraz, ez da gai berria baina ez dugu ikusi nahi. Eta noski arriskuan gaudela. Pentsatzen dugu guretzako beti egongo dela janaria, dirua dugunez pribilegio hori dugulakoan. Eta ez dut uste denontzako egongo denik. Pobretzen ari gara eta kezkatuta nago: Nafarroan uza galdu da, baina baita Gaztelan, Andaluzian eta Katalunian ere. Argentinan ere lehorteak izan dira eta han ekoizten dute soja, ondoren Kataluniako makro-granjetako zerriak elikatzeke erabiltzen dutena. Lehen elikagai krisiak Tunezen ikusten ziren, baina gero eta gertuago ikusten da. ●

Gasa ikusezina da, gasbidea ez

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Pertsona bat sartu da lurrazpian, inposatutako makroproiektu baten aurrean planto, lekutik pasarazi nahi duten gasbidearen eraikuntza gelditzeko asmotan. Eta gelditu du. Ordurako ondare arkeologikoa ukitua badu ere, gehiago ez suntsitzea lortu du. Izan zitekeen Lezetxiki, izan zitekeen Arkaitz Erreka, edo Aralar. Alemania edo Mexiko. Baina istorioa ez da berria eta 1993ko ekainaren 7ra garamatza, Larrainera (Zuberoa), Ruben Gomez espeleologo eta gasbidearen eraikuntzaren aurkako Gaz-Pars elkarteko kideak Burgegiko meategiaren galerian sartuta egin zuen ekin-tzara.

Hiru hamarkada pasa dira Zuberoako gasbidearen lanak etenarazi zituztenetik eta urte borobila profitatuz ARGIAk

AITOR BAYO / ARGIA FOTOTEKA



egutegiko efemerideetara ekarri du gertatutakoa –argia.eus/efemerideen-kanala orrialdean ere topa dezakezue informazioa-. Ordutik hona asko izan dira proposatu –eta aurrera eramandiren antzeko proiektuak. Ez aurkako-rik gabe.

Zuberoan bertan ere mamua ez da uxatua eta berriki egin dituzte 1990eko hamarkadan protesta artean eraikitako gasbidean obra gehiago, uholdeek eragindako kalteak konpontzeko. *Ipar Euskal Herriko Hitza*-n 2020ko uztailaren 27an argitaratutako “Gasbidearen mamua lurpetik atera da” artikuluan irakur daitekeenez, garai hartan ekin-tza sonatua egin zuen Ruben Gomez bera da Liginagako auzapeza, eta bere esanetan jadanik duela 30 urte aurkako argudioetako bat zen uholdeek gasbidean kalteak egin zitzaizketela.



NAIXN (CC BY-SA 2.0)

Gure argazkilari kolaboratzaileen sarean parte hartu nahi duzu?

Argazkilarien kolaborazioa oso garrantzitsua izan da beti kazetaritzan, eta ARGIAk sare sendoa osatu nahi du Euskal Herri osoan zehar, han eta hemen egiten ditugun elkarrizketa eta erreportajeetarako. Horretarako kolaboratzaile gehiagoren bila gabiltza.

Argazkilaria baldin bazara eta gure albiste, erreportaje eta elkarrizketak irudikatzeke gurekin kolaboratu nahi baduzu, bidali zure curriculum eta atera dituzun argazkien adibide batzuk, zure berri izan dezagun.

Emailaren gain “Argazkilarikolaboratzaileak” jarri eta bidali dena honako helbide elektronikora: **multimedia@argia.eus**

ARGAZKIAK ETA AMAIA EZPELDOI

ARGIAren altxorren artean topatu ditugu, fototekan, Aitor Bayo argazkilari eta ARGIAko kolaboratzaile izandakoak gasbidearen eraikuntza lanei ateratako argazkiak. Tamalez oso aktualak izan litezkeenak, ez balitz zuri-beltz salatariagatik – eta hondeamakinez entenditzen dutenek ere segur topatuko dituztela desberdintasunak–.

Paisaia eder eta zuluari ateratako argazki bat ibili zuen Garbiñe Ubedak, gerora hain ezagun egingo zen Amaia Ezpeldoi detektibearen *Bakean utzi arte* (Susa, 1994) Itxaro Bordaren lehen eleberriaren portada koloreztatzeko. Eta ez irudia bakarrik, historia idatzita gelditzeke ere eskribitu baitzuen Bordak.

ARGIAren hemerrotekan topatuko ditugu orduko borrokaren pista batzuk eta Amaia Ezpeldoi detektibearen eleberriak irakurtzeko aitzakia polita ematen digu. Agian denak balioko digu gaur egungoa hobeto ulertzeko (edo borrokatzeko). ●

ETXEKO LAGUN BAT, INTSUSA



GARBIÑE LARREA
@GAR2LARREA

Labur idaztea eskatzen du artikulugintzak eta gaur orain arteko lanik zailena hartzera noa intsusa hautatuta. Izan ere, *Sendabelarrek dakitena* liburua idazten ari nintzela sei orrialde bakarrik eskaintzea ariketa zaila izan zen oso. Behin hiru orduko ikastaroa eskaini nion eta motz gelditu ginen, gero seikoa antolatu genuen eta lantzeke utzi genituen zenbait gai. Erremedio anitzez gain kondairak eta ipuinak dauzkagu eta ikuspegi antropologiko zein etnografikotik aztertuz gero kontu bitxi asko ikasiko ditugu. Beraz, gaurko testu hau testu sorta baten aurrenekoa izango da, sendabelar honen emana eta jakintza agortzen ez den iturriaren parekoa baita.

Hasteko esan lintsusa, plausta, sabuka, sakuta, txutxika eta aztunpa izenez ere ezaguna dela *Sambucus nigra* euskaraz aritzen garen lekuetan, aldaera gehiago ere badituelarik, eta ez duela landarea bakarrik adierazten. Estitxuk erakutsi zidan Bortzirietan aztunpa nes-

ka ergela ere bazela baina hainbat lekutan odolik gabeko pertsona izendatzeko erabiltzen da; Orotariko Euskal Hiztegiari jasota datorren adibideak ederki adierazten du: "Gero ariko da aztunpa bezala negarrez".

Landare karismatikoa dela esaten da, ez baitu inor indiferente uzten, gorroto adina maite eta miresten duen jendea aurkituko duzue. Lehen taldekoek pozotsua eta zorigaiztokoa dela, azpian sugegorria bizi ohi dela eta halakoak esaten dituzte. Bigarren taldean intsusak liluratu gintuenak eta etekina ateratzen diogunak gaude. Mariano Ostolaizek deitu zion "etxeke laguna" eta idatzi zizkion bertso ederrak dauzkagu gogoan, Llanesen (Asturias) intsusa bildu aurretik belaunikatu eta aitaren egiten zuen Mariarekin ere akordatzeko gara, baina etorkizunean ere bere botikak bizirik jarrai dezan intsusa landatu duten Lazkaoko Ainitze eta Ondarruko Aitziber ezin ahaztu, edo Saran etxe ondoan bere kabuz jaio zaiolako pozik dagoen Jon.



DANI BLANCO

egonarrria
Lurrari entzuten dion saioa

Gai nagusia: **Ekologikoa**
Esperientzia: **lurre txikiko ogia**

Biolur elkarteak 30 urte bete ditu eta Miriam Agirrezabala eta Peio Rubiok azalduko dute ibilbidea. Esperientzien atalean, Oartzungo Urmendi Haur Eskolako jantokiko esperientzia ezagutuko dugu.



ENERITZ ARZALLUS

argia.eus bizibaratzea.eus

San Juan egunean intsusaren adaxekin egiten den tradizio politikak bizirik dirau gure artean. Animatzen zaituztet zeuek bedekatzera (edozer dela ere hori) eta gurutzera egitera, gero etxeke ate eta leihoetan jartzeko. Tximistak, lapurrak, sorginak eta sugeak uxatzeko errituala duzue hau, ez da gutxi.

Loretan daukagunez, gaur loreetara mugatuko gara. Egun eguzkitsuetan bakarrik bildu behar direla esaten da, taiman beti ere, bestela udan ez baitugu alerik izango. Loreak buruz behera izara edo kartoi gaineen lehortu eta neguan infusiotan hartzeko bikaina dugu, arnas bideetarako sekulako erremedioa baita. Begitarako kolirio hobeak gutxi izango dira, horretarako ere eduki lehortuta.

Antiinflamatorioa eta depuratzailea ere bada, azalerako batez ere: ukendua egitekoak bazarete, ipini intsusa loreak, zalantzarik gabe. Lore lehortu berriak ekilore oliotan beratuta azala garbitu, edertu eta makillajea kentzeko produktu bikaina egingo dugu. Lore bildu berriekin edari freskagarria egitea ere badago, legami naturalak dituen hartzitu egingo da eta edateko xanpain goxoa egingo dugu. Topa! ●

LUHARTZA, LUR-TXAKURRA ETA TXIR-TXIR SATORRA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS



Txir-txir gozo ari dira uda hasiera fresko honetan txoriak. Eusebio Mugertza Azpiazu “Mendaro Txirristaka” eta “Kilimongo Dukea” bertsolariak (1874-1955) honela zioen: “Egun-sentiyan txantxan-gorriyak txir-txir kantari deitzian”. Lur gozoetako baratzeetan beste txir-txir bat entzuten da, txir-txir satorrarena; Aramaioko Oletan hala esaten diote, Ziortza-Bolibarren “lur-txakurra” esaten diotela ikasi nuen eta gurean, Gipuzkoako Beterrin, luhartza da.

Luhartzak kantu nabarmena egiten du urte sasoi honetan, ilunabarrean batipat, eta zataren txir-txirraren tanke-rakoa omen da. Txir-txir satorrak, sator kantariak, hareapekoaren edo satorraren antzeko bizimodua du: lurpean bizi da, galeriak eginez, landareen sustraiei erasoz eta moztuz. Landareak oso-osorik ebaki ditzake ipurditik eta kalte handiak sortzen ditu. Parean harrapatzen dituenak ere gupidarik gabe jango ditu: har, zizare, txindurri... Arantzazuko egutegiko 1959ko martxoaren leheneko orriak honela dio: “Piper eta tomate azi onak erein eta ondo jagon, gabeko leiak edo lurtxakurrak ta bareak alperriak galtzea gura ez badozu”. Baina bera gustura asko jaten duenik ere bada: zata bera eta beste harrapariak, araba-zozoa, trikua, satagina, arratoia, azeria eta satorra. Asian lagunek ere jaten dute. Hemen zenbait arrainen arrantzarako beita ezin egokiagoa omen da.

Udaberriko iluntzetako txir-txir kantua arrarena da. Bere kantuak aire berezia izateko, lurpeko zulobideetan txoko bereziak eraikitzea da arraren lana, emeak bera aukera dezan. Artista izango da, izan ere, bere lur-zulatzaille teknikan oinarritzen omen da tunelak egiteko berezko makinena.

Zomorro gaiztoa da baratzezainarentzat, landare asko alferrik galtzen du. Eta jakina, badaki non bizi: bere bazka dagoen tokian baratzea egiteko lur onenak diren erribera lur harroetan. Zomorrotzar barbalot arraioa! Kilimongo Dukeak berak zioen: “Lixarrerriyan gallentzen dira, satorra eta luartzia”.

Bere izenekin saltsa ederra dugu; ea zoologoren batek noiz heltzen dion gai honi. Gazteleraz duen izenetako bat “Alacrán” da, arrabioak bezalaxe, eta nik uste hortik datorrela nahasmen guztia. “Arrabio” eta “luhartza” hitzak jaso direnean gaztelerazko bat eta bera eman izan zaie eta orain harrapazank. Manuel Larramendik bere 1745eko hiztegian dio arrabio dela “*Alacrán y cualquier animalillo ponzoñoso*” eta ezin harritu luhartzari ematen zaion karrokada izenekin: arrabio bera, luhartz, lur-txakur, txir-txir sator, sikilikitu, hogeita lau oreneko, otxabarri, xabiroi, arlui, zalmiroi, segarhora, pio-pio...

Txir-txir eta pio-pio, bere kantuak txitoenaren antza ere ba ote du? ●

IRAKURLEAK GALDEZKA

Etxean luarra egiteko bi konpostagailu dauzkagu, bata iazkoa eta bestean orain ari gara. Kontua da ikaragarritzko eltxo txiki pila daukagula. Ontzia ireki eta zientoka eltxo txiki ateratzen dira bertatik. Hori normala da? (Asier)

Eltxoei gustatzen zaizkie hezetasuna, nitrogenoa duen materiala (berdea) eta ingurune azidoa. Saiatu hondakinak sortu ahala luartokira botatzen. Hondakin gozoak badira, banana edo fruta azalak adibidez, pilan barrura sartu, ez utzi azalean. Eta kartoi zatitxoekin nahasi, horrela nitrogeno maila jaitsiko da eta hezetasuna kontrolatu. Errauts pixka bat nahasteak azidotasuna apalduko du. Pilaren gainean oihal lodi bat (alfonbra puska...) bustita jarri, sarbidea zailtzeko.

ERLANKI ERLEZAINZA, AFIZIOTIK OFIZIORA



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Haizea Belarra nafarra ari da buru-belarri Berako Erlanki erlezaintza proiektuan, baina Mikel Lertxundi bikotekideak ere garrantzia handia du, beraren bidez hasi baitzen Belarra erlezaintzaren munduan pixkanaka sartzen: “2015ean hasi zen bikotekidea erleekin, ni orduan sukaldaritzako irakasle lanetan ari nintzen”. 2017an haurdun gelditu zenean, ordea, lana uztea erabaki zuen, eta denbora gehiago libre zuela eta, Lertxundik afizio zuen jardun horretan laguntzen hasi zen. “Poliki-poliki hasi nintzen, baina geroz eta denbora gehiago eskaintzen nion... eta, azkenean, Mikelen afizioa bihurtu zen nire ofizio!”.

ERLEAK BARATZEAN ETA ERLAUNTZAN

Modu profesionalean ez bazen ere, erleekin bazuten harremanik lehenagotik Lertxundiren etxean. “Mikelen gurasoek betidanik izan dituzte polinizaziorako erleak baratzean, baina horiek ez ziren ezta ekoizteko helburuarekin jarriak, baratzearen onurari begirakoak baizik”. Bestalde, osaba batek ere bazituen erleak eta ezta ekoizten zuen. Istripu baten ondorioz utzi egin behar izan zuen, eta erreleboa Lertxundik hartu zion. “Erleak eman zizkion osabak, eta baita erlategiak eta material guztia ere”, azaldu du Belarrak.

Horrela sartu zen erlezaintzaren mundura Lertxundi, osabaren, gurasoen eta bikotekidearen beraren laguntzarekin. Eta horrela pasatu zen, gerora, Belarra proiektuaren ardura hartzera. “Ni, oraindik, ikasteko prozesuan ari naiz. Mikel da nire irakaslea, hasi zenean

ikastaro eta formakuntza ugari jaso baitzituen”, dio. Erbel erle beltzaren aldeko elkartearekin badute harremana, eta bere garaian Lertxundi bertan aritu zen lanean. “Erle beltzarekin ari gara lanean, bai, bertako erlearekin. Nola bestela?”, galdetu du Belarrak.

ERLEZAINZA, KONTZIENTZIA HARTZEKO BIDE

Lau ezti mota ekoizten dituzte Erlankin, udaberriko bi eta udako beste bi. Baina ez hori bakarrik: lore-hautsa, propolia eta animaliak bizirik ere saltzen dituzte, paketetan edo nukleotan. “Aurten erregina-jelearekin hasteko asmoa dugu, baina ikusiko da, erditzeko gutti falta zait-eta”, dio erlezainak. Produktu horiek guztiak hurbileko denda txikietan

Bertakoa eta kalitatezkoa jateko: Ekaineko garaiko barazkiak

Apioa, azenarioa, baba, borraja, Daikon arbi zuria, erremolatxa, errefaua, errukula, ilarra, kuiatxoa, kukulua, leka, luzokerra, mihilua, patata, perrexila, pipermina, piperra, porrua, porru-tipula, uraza, zainzuria, zerba eta ziazerba.

eta azoketan saltzen dituzte batik bat, eta etxean bertan ere bai.

Belarrak nabarmendu duenez, urteotako ikasketa prozesuak erlezaintzan saktzeko ez ezik, kontzientzia hartzeko ere balio izan dio: “Hau ez da erlezaintza bakarra, anitz ikasten da gure inguruaz ere, naturak duen garrantziaz ohartzeko bide bat da”. Barroa gaixotasuna, liztor asiarra eta beste hainbat zailtasun medio, erlezain izatea geroz eta zailagoa dela dio, baina bestetik, sumatzen du jendea pixkanaka kontzientzia hartzen eta hurbileko eta kalitatez ekoiztutako elikagaiak baloratzen. “Kontua ez da ezta kontsumitzea soilik, da ohartzea horretarako erleak beharrezkoak direla, naturak aitzinera egiteko beharrezkoak diren bezala”. ●



Artista tripa-zorroak

XIX. eta XX. mendeen artean, gosearen eta barauaren inguruan jardun zuten borondate handiko gizon eta emakume "adoretsuak" izan ziren. Entretenimenduko profesionalak ogibidez, kristalezko kutxa baten barruan asteak ematen zituzten deus jan gabe, ikusleen gozamenerako eta miresmenerako.

 JULEN AZPITARTE

Zale horietako asko, gainera, jatera hurbiltzen ziren kaio-lako horma gardenetara, penitentziagilearen amorrua sutzeko asmoz. "Gosearen artistak" izenarekin ezagunak, haien egitekoak zerikusi gutxi zuen aurrekari zituzten anakoretekin, zeintzuk arima arazteko helburuarekin, aszetismoaren jarraitzaile sutsu, argal eta goseti bihurtu ziren.

Animatzaile tripa-zorrien eginkizunak, hain justu, irabazi asmo nabarmena zuen: miresleek sarrera ordaintzen zuten, eta artisten espektakuluak euskarri aproposak bilakatu ziren hainbat produktu iragartzeko; tartean, baraualdian edaten zituzten ur mineral botilen markak. Kasu batzuetan, managerra ere izaten zuten. Artisten inguruan jendetzak bildu ziren, eta haien oihartzuna mundu osora hedatu zen. Europan, batez ere, sekulako arrakasta erdietsi zuten. "Gosearen artisten" sonak bat egin zuen beste espektakulu publiko batzuen ez tandarekin, zinemarekin edota operarekin.

Jolly (Siegfried Herz) alemaniarra 44 egunez egon zen ezer jan gabe Berlingo Krokodil jatetxean, 1920ko hamarkadaren amaieran. Garaiko 135.000 marko irabazi zituen; hau da, egungo miloi erdi euro inguru. Ekitaldira 150.000 bat zale bertaratu ziren, goseak eragindako kalteak ikustera. Jardun artistikoa profe-

sionalizatzen aitzindaria Giovanni Succi italiarra izan zen. Bera izan zen ikuskizunari balio publizitarioa erantsi zion lehena, eta 20 urteko ibilbidean 30 barau-ekintza burutu zituen. Artista ausartena eta sonatuena izan zen, betiere ekintza guztiak garbitasun osoz egin baziren, – behin, baina, haragi xerra bat jaten eta xanpaina edaten harrapatu zuten Vienako hotel batean, 25. barau-egunean–. Italiarra ospetsu egin zen, New Yorken ere izan zen, eta 45 eguneko baraualdiaren ondotik, hezur-huts eta tripa-festa ederra egin zuen ikusleen aurrean –ohikoa zen ekintzaren bukaeran tripakada publiko batekin ospatzea–.

Franz Kafkak 1924an idatzitako *Ein Hungerkünstler* ("Gosearen artista bat") kontakizun ezaguna italiar gosetian oinarritua dagoela esan ohi da. Casimiro argitaletxeak plazaratutako kontakizunaren gaztelaniazko bertsioan, Christian Bank Pedersenek *En lo mejor del ayuno* ("Baraualdiaren onenean") testua jasotzen da, baita Walter Benjaminen beste idazki bat ere. Bada, Pedersenek ondo baino hobeto islatzen du gosearen artearen zioa: "Gosearen artea pisua galtzean datza, baina gorputzak pisu gehiago galtzen duenean, gehiago irabazten du arteak. Arteak ez da galtzen bere obraren argaltasun gero eta handiagoaren ondorioz, artistaren obra, obraren artista bera baita".

BILBON ETA GASTEIZEN, GOSEBERA

Euskal Herria ere bisitatu zuten gosearen artistek. 1901eko ekainaren 1ean, *El Heraldito Alavés* egunkariaren arabera, Mr. Garnin-ek Bilboko Olinpia antzokia bisitatu zuen, eta Olabeagako auzokide batek 500 pezetako apustua egin zion omen frantziarrari: baietz hamar egun baino gehiago igaro jan gabe. Artistak apustua onartu zuen.

Egunkari horrek gurean gertatutako beste *show* gosetu baten berri ere eman zuen. Ohiko formatuaren aldea-xelebreago batez baliatu zen Garnié emakume frantziarra: Gasteizen izan zen hamabi eguneko baraualdia egiteko xedarekin, baina bereizgarri gisa, lur azaletik metro batera lurperatuta igaroko zuen baraualdia. 1922ko abuztuaren 1ean lurperatu zuten Florida Parkean, eta 9an atera zuten zulotik.

Gaur egun ere jarraitzen da praktika horiei buruz idazten. Fernando Gómez Viñas (Cordoba, 1966) idazle, itzultzaile eta marrazkilaria da horietako bat, zeinak *Los artistas del hambre (o Los orígenes de la performance)* ["Gosearen artistak (edo Performancearen jatorria)"] saiakera grafikoa argitaratu berri duen; liburuak gosearen artisten ibilbidearen eta ondarearen errepasoa biltzen du. Gosea arte bihurtu duten hainbat sortzaile eta korrante artistiko garaikide aipatzen

ditu bere lanean Gómez Viñasek, aitzindarien eta ondorengoen arteko lotura zuzena agerian uzteko asmoz. Marina Abramovic artista serbiarrak, esaterako, *The House with the Ocean View* ("Ozeanora begirada duen etxea") ekintza aurkeztu zuen 2003an: hamabi eguneko egonaldia egin zuen etxe batean, isilik eta baraurik, eta ikuslegoaren aurrean.

"NESKATXO LILURAGARRIAK"

Helburu artistikoak eta enpresarialak gorabehera, gizakiak hainbat arrazoi izan ditu barau egiteko; halere, gehienetan arrazoi mistikoak eta erlijiosoak izan dira tartean. Hala, Kristo edo Buda barau egiten zuten profetak ziren, eta lurreko imitatzaileak ere agertu ziren, tartean, kristau mitologiako basamortuko aita kristauak. Ezagunak dira ere erlijioei lotutako baraualdi kolektiboak, besteak beste, ramadana eta garizuma.

Aszeta ezagunenetako bat Simeon Estilita izan zen, Luis Buñuel zuzendari aragoiarrak zinemara eraman zuena 1965ean, *Simón del Desierto* ("Basamortuko Simon"). Bada, Simonek, V. mendean, 37 urte igaro zituen zutabe baten gainean. Aurretik, baina, gosearen artisten antzera aritu zen: ziega batean giltzpetu zen 40 egunez, hamar ogirekin eta urez betetako pitxer batekin, eta atea hormatzeko agindua ere eman zuen, tentaldiari eusteko. Atea irekitzean, ordea, Simon konorterik gabe aurkitu zuten, baina bizirik. Ogirik ez zuen jan bitarte horretan.

Behe Erdi Aroan, halaber, barau egiten zuten lehenengo emakumeak azaldu ziren; garai hartan, hain zuzen, dieta bitxia zabaldu zen andre horien artean: ostiaz baino ez ziren elikatzen, bizitzeko Kristo nahikoa zela sinbolizatzeke asmoz.

Horien artean, nabarmentzekoa da Lidwina holandarra (1380-1433), zeinak, ustez, 28 urte eman zituen Kristoren gorputza soilik jaten. Sasoiko korrante mistiko baten protagonistetako bat izan zen, eta bere garrantzia azpimarragarria da. Izotzean patinatzeko zegoela, ezbeherra izan zuen. Ondorioz, bizitza osoa ohean eman zuen. Harrezkeroztik, barau egiten hasi zen, eta ikuskariak ere izan zituen.

Esklerosi anizkoitza diagnostikatu zioten lehen pertsonetako bat izan zen, eta gaixo kronikoen santa ere izendatu zuten. Hori dela eta, Lidwinak sendatzeko aparteko gaitasuna zuela jakin zen; hortaz, bisitak jasotzen hasi zen, gosearen artista bat bailitzan. Ez zuen sarrerarik kobratzen, baina fidelek dirua eta opariak uzten zituzten, bereziki nobleek.

Kristo imitatzen zuten emakume horien ondorengoak dira *fasting girls*-ak edo baraua egiten zuten neskak, "neska zoragarriak" bezala ere ezagunak. Etxean sartuta, ezer jan barik, bisitariak hartzen zituzten, eta ostiak eta Kristoren aipamenak alboratuta, haien jardunak espektakulu eta negozio itxura hartu zuen, gosearen artisten manierak erakutsiz. Horien artean, XIX. mendearen erdialdeko Sarah Jacob edo *the Welsh fasting girl* ("baraua egiten zuen neska Galestarra"). Bi urtez izan zen mauka eduki gabe, eta familia ez ezik, herria bera ere aberastu zuen, bisitariak utzitako sosa eta eskaintzen ondorioz; herriko geltokian gidariak izaten ziren bisitarien zain, Sarah-ren etxerako bidea erakusteko. Jakina, ezinezkoa da horrenbeste urtez jan barik egotea, beraz, iruzurra agerikoa zen: 11 urteko umeak ezkutuan jaten zuen. Amarrukeria zabaldu zenean, haurra medikuen

kontrolpean jarri zuten, baina gurasoen burugogorkeria tarteko, hamaika egun ezer jan gabe igaro ondotik zendu zen. Neskato zoragarrien fenomeno bikain islatzen du Sebastian Lelio zinegileak zuzendutako *The Wonder* (2022) ("Mirakulua") filmak, zeina streaming bidezko plataformetan dagoen ikusgai.

Barau egiten zuen azken neskak famatua Molie Fancher (1848-1916) *Brooklyn*go *enigma* izan zen. Gosearen artisten urrezko garaia abiatuko zuen Henry Tanner-en *Gosearen doktorea* inspirazio izan zen. Sasoiko baraualdi sonatu horien aurrean, eszeptizismoa nagusitu zen medikuen artean, baina Tanner doktoreak erakutsi nahi zuen posible zela baraualdi luzeak egitea, alegia, gorputz humanoa horretarako prestatuta zegoela egiaztatu nahi zuen. Hori dela eta, bere baraualdi propioa abiatu zuen: 40 egun igaro zituen jan gabe, ura baino ez zuen edan, eta hori guztia publikoaren begien aurrean egin zuen. Horiek horrela, mundu osoko ikusleen begiradak gizenduko zituen espektakulu gosetua martxan jarri zuen.

Jardun goseti horren itzalak gaur arte iraun du. Esaterako, 2003an, David Blaine ilusionista estatubatuarra soka batetik zintzilikatutako plexiglasezko kaiola batean sartu zen 44 egunez. Tarte horretan 25 kilo galdu zituen. Aurretik ere antzeko ikuskizunetan parte hartu zuen, baraurik egin ez zuen arren; besteak beste, 2002an, *Vertigo* ("Bertigoa") izeneko performancea burutu zuen: New York-eko zutabe batera igo eta 35 orduz bertan paratu zen, XXI. mendeko Simeon Estilita bailitzan.

Haatik, Blainek ez zuen gosearen artistek sortu zuten miresmenaren txintik ere jaso, gaur egungo gizartea eta ordukoa erruz aldatu diren seinale. Fernando Gómez Viñasek bere liburuan honela bildu zuen: "Ikusle batzuk prakak jaitsi, eta ipurdia erakutsi zioten; beste batzuek hanburgesak, arrautzak, golfeko pilotak, garagardo botilak eta pinturaz betetako globoak bota zituzten, eta disko jartzaile batek musikarekin gortu zuen 24 orduz. Eta kasurik txarrean, gizon bat atzeman zuten kaiola airean mantentzen zuen soka moztu nahi izan zuelako". ●



DECKARD CROIX


'ESTRATUARTEAK' ERAKUSKETA

Eskulturaren geruzetan

Altzuzako puntu gorenetik Iruñerria begirada bakar batez harrapatu daiteke, ortzi mugako marrak zuzenean lur gorriak eta zeru urdin-zuriak bat egiten dutenean. Berde eta fresko sumatzen den muino horretan, hormigoi gorridun eraikina altxatzen da tente, espazio irekira parez pare begiratzen dioten beirate handiak ditu aldamenen eta goi aldean angelu beltz zorrotz eta erpintxoak dituen forma nahasiak ikusten ditugu. Saiz de Oiza arkitektoak 2003. urtean eraiki zuen Oteiza Fundazioa bertan, eskultorearen azken etxea izan zenari itsatsita, Oteizaren legatua modu soil eta ederrenean jasoko zuen tenplu modernoa. Oteizaren lana egungo begirada garaikideenekin harremanetan jartzen duen azken proiektuak ekarri gaitu Nafarroako koordinada hauetara.

 JONE ALAITZ URIARTE  OTEIZA MUSEOA

Aldizkariko sail honetan sarri idatzi dugu nola den garrantzitsua adierazpen artistikoak –erakusketak, performanceak, aurkezpenak, solasaldiak– hiriburuetako indar erakartzaileen logiketatik deslokalizatzea eta beste testuinguru batzuetara eramatea, bertan sortzea, bertan erakustea. Pertsonalki, gero eta gehiago eskertzen ditut espazio ez instituzionaletan, artearen erakusketarako ohikoak ez diren lekuetan edota beste egiteko forma batzuei erreparatuta egiten diren proiektuak. Oteiza Museoa Iruñetik hamar kilometrora dago, 300 bat bizilagun dituen Altzuzako herrian, eta bertan, aldiro, erakusketa puntualak eta ekintzak antolatzen dituzte, museoko ohiko bildumari bizitasuna gehitzeko, Oteizaren lana adierazpen garaikideekin harremantzeko eta publiko berriak erakartzeko. Horregatik, merezi



'Estratuarteak' erakusketaren Doizen bista.



'Estratuarteak' erakusketaren González Guerreiroren bista.

izan du kotxea hartu eta *Estratuarteak* erakusketa ikustera joateko egin dudan txangoak, hiru artista garaikideren lan eskultorikoa biltzen duen proiektua. Egungo eskulturak aurkezten dituen forma eta materialen aniztasun eta egiteko modu ezberdinetan fokua jartzen duen talde erakusketa da.

Apirilean inauguratu zen Nora Aurrekoetxea (Bilbo, 1989), Miren Doiz (Iruñea, 1980) eta Marina González Guerreioren (A Guarda, Galizia, 1992) azken lanak aurkezten dituen erakusketa, Juan Pablo Huercanos komisarioarenean. Forma, material eta egiteko modu berrietan lanean dabiltzan hiru artisten lanak Museoko beheko solairuan daude ikusgai, espazio banatuetan, non bakoitzak bere espazio propioa daukan obrak hedatu eta haien artean oihartzunak sorrarazteko. Egun, eskulturaren diziplina hartzen ari den konplexutasunaren eta egiteko modu anitzen erakusleak dira hiruak: bide ezberdinetatik hurbiltzen dira eskulturara, eta materialen aukeraketan eta material horren jatorriaren beran erabateko aniztasuna dago. Horrek egiten du proiektua interesgarri, baita ere ikusteak nola erakusketa areto honetatik pasatako artistak, beti ere Oteizaren bildumaren begiradapean, egungo eskulturaren nolabaiteko lagin baten erakusleak diren, hala nola, David Bestué, Lorea Alfaro, Itziar Okariz, edota Fermin Jiménez Landa.

Erakusketaren sarreran artista bakoitzaren obra bana dago, eta hasierako momentu horretatik identifika daitezke hiru artisten joerak eta ondoren espazioan barrera errepikatuta ikusiko ditugun keinuak, kolore-gamak eta akaberak. Miren Doizen eta Nora Aurrekoetxearen obrak segituan identifikatu ditut: lehena, lurrean testura leun eta azalera distiratsua duen mihiztadura eskultorikoa; bigarrena, hormatik eskegita dauden bi buru, non galderdiak edo mediak erabili dituen zatar-paperezko bolumenari forma emateko. Albo batean, keramika zuri distiratsuz egindako lau maskor daude hormari lotuta, goitik behera txikitik handira ordenatuta eta guztietan handienak ur pixka bat dauka, elizetan egoten den ur bedeinkatuaren pilan gisa. In- trigatuta, Marina González Guerreioren obra lehendabizikoz ikustera pasa naiz.

IRAGANEKO ALT XORRAK

González Guerreioren obrek iragan-kortasuna ezkututzen dute. Bere obrak aurkezten diren gelatxora sartu naizenean, nerabe baten logelara sartu izanaren sentsazioa izan dut, neska gazte baten bitxiak, egunerokoak, altxorrak eta fantasiako atmosfera bat aurkitu dut bertan. Eskulturaz mintzo garenean izan dezakegun irudi horretatik urrutidago *U* formako egurrezko balda horren gainean aurkezten direnak: dimentsio txikiko 30 bat objektu, segidan kokatu-

ta, non kolore pastela, arrosa eta urdina gailentzen den argizarizko akaberadun kapritxozko piezetan. Bitxiontzi distiratsuak izan litezkeenak daude, baita eskuz idatzitako hainbat koaderno pilaketa ere, eta keramikazko pieza txikiak, azalean lore-motiboa dutenak. Argizarian eta silikonan betiereko itota geratu diren eraztun txiki doratuak ere begiztatu ditut, baita pastilla-kaxak, pilulen blisterrak eta pasta likatsu batekin berriz beteak izan diren bonboi kaxa hutsak. Egurrezko baldan, arkatzez marraztuta, motibo txikiak ageri dira, tarteka pieza guztiak lotzen dituen ibaia dirudi, eta obren artean eta piezetako hutsuneak betetzen, arroz aleak daude. Ondoren irakurri dut erakusketako txartelean artistaren familia antigoalekoen saltzaile direla eta orduantxe hasi naiz ikusitako guztia beste begirada batetik irakurtzen.

KONPROMISOA ETA ZINTZOTASUNA

Miren Doizekin duela urte batzuk lan egiteko aukera izan nuen, eta paradoxi-koak badirudi ere, lau pintoreen praktika batzen zituen talde-erakusketa batean izan zen; horregatik, grazia egin dit orain eskultoreen erakusketa batean ikustea bere lana, diziplinen arteko mugak zeinen lausoak diren seinale. Doizen egiteko modua etenezina da, eta hor ikusten da artistak lan egiteko duen konpromisoa eta zintzotasuna. Gehiegizko ekoiz-

'Estratuarteak'
erakusketaren González
Guerreioren bista.





‘Estratuarteak’ erakusketaren Aurrekoetxearen bi bista.

pena eta gainezka egiten digun mundu material honetan, objektu berriak ekoiztea baino, aurkitutako horrekin egiten du lan artistak, existitzen den hura eraldatuz, aukera berriak emanez, material ezberdinak elkartuz, gainjarriz, konbinatuz edo itsatsiz. Elkartze hauetatik forma eskultoriko ederrak sortzen dira, non gainazaleko testurak kolore distiratsu eta plastikotasun handia duten, eta ondo erreparatuz gero, erreiz identifikatu ditzakegu etxerako bidean aurkitu dituen elementuak –burdinezko hodiak, neurri ezberdinetako egur listoiak, moketa zatiak– eta horiekin egin dituen konposizio poetikoak. Doizek erakusketara espazioan esku hartu du berezko arkitekturarekin jolastuz eta pinturaren bitartez horma, lurra eta sabaiaren arteko mugak desegin ditu “tranpantojo” efektua lortuta.

FORMA ETA ORNAMENTUA

Azkenaldian Nora Aurrekoetxearen lan prozesua gertuagotik ezagutzeko aukera izan dut eta pozez ikusi ditut orain hilabete batzuk prozesuan zeuden erretxinazko eskulturak aretoan dotore instalatuak. Artistak Oteizaren *Unamuno*-ren erretratua eskultura hartu du oinarri –atzealdea hustuta daukan pieza– eta horrekin buru bako bustoak sortu ditu, bururik ez baina orrazkera definituak dituzten piezak, sostengatuko dituen estrukturarik behar ez duten formak dira *antibustoak*. Aurrekoetxearen praktikan badago formaren eta ornamentuaren aldeko erabateko aldarrikapena, historikoki azaleko edo ez-funtsezko kontsideratua izan den hura erdigunean jartzekoa. Horren lekuko azken aldian ilearekin egiten ari den ikerketa, izan txirikorda forman,

izan orrazkera baten dauden detaileen irudikapenean. Artistak sortu dituen eskulturak argizariz eta erretxinaz eginda daude eta binaka eta launaka antolatu ditu. Buruak hagaxka batzuk zeharkatuta aurkezten dira –hauek barrutik ere hutsik daude– eta elementu horiek arkitekturaren mintzairara gerturatzen gaituzte, eraikuntzara, artistak arkitekturarekiko duen interesaren lekuko. Sabai-leihotik sartzen den argi epelak aretoari eta bertan dauden piezei aparteko geruza bat eskaintzen die eta are dotoreagoa ikusten dira *red, red, red, red, peruke* serieko piezak espazioan sakabanatuta. Lurrean bermatuta dagoen buru baten ondoan toalla zuri bat dago tolestuta, begizta bat duen bordatu delikatua bistara utziz. Gozameneko kapritxoaren erabateko aldarri honekin etxerako bueltari ekin diot. ●




Felix Arrieta Frutos

ZAINZAREN HARIAK

OIHAL BERRI BATERAKO BIDEAK EHUNTZEN

elkar

Bi monje, bi zeta-har eta bi inperio



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Txina, duela 4.700 urte. Si-Ling-Chi printzesari zeta-har bat erori omen zitzaion te berotan eta hala deskubritu omen zuen zeta egiteko prozesua. Konfuziok jasotako kondaira honek adierazten du Txinan Antzinaroan hasi zirela zeta ekoizten eta mendetan eutsiko ziotela sekretuari.

VI. mendearen erdialdean, zeta produkturik preziatuenetakoa zen Europan, eskaera gora egiten ari zen etengabe eta zetaren merkatuak, ekoizleak aberasteaz gain, Zetaren Bidean jarduten zuten bitartekariei ere etekin oparoak ematen zizkien. Justiniano I.a Bizantzioko enperadoreak etekinen zati bat nahi zuen eta, horregatik, bi monje bidali zituen Txinara zetaren sekretuaren bila.

Bi urteko bidaia luze eta neketsuaren ondoren espioitza industrialia egitera bidalitako bi monje kristauak misioa beteta itzuli ziren inperiora. Bi zeta-har lapurtu eta kanabera batean ezkutatuta eraman omen zituzten gortera. Beste bertsio batzuk diote har gehiago izan zirela lapurtutakoak eta beste objektu batzuetan gordeta eraman zituztela. Kondairak kondaira, sekretua lapurtzea lortu zuten eta Bizantzion zeta ekoizten hasi ziren, egungo Libano eta Siria inguruetan masustondoak ederki hazten direla aprobetxatuta; zeta-harrez gain, masustondoak ere ezinbestekoak baitira zetazko oihalak egiteko.

Zetaren Bidea beste ia mila urtez izango zen merkataritza bide nagusietakoa,



VI. mendean bizantziarrak zeta ekoizten hasi ziren, prozesuaren sekretua mende luzez ezkutuan izan zuten txinatarrei lapurtuta.

gainbehera egin baino lehen. Oihalez gain, beste salgai asko eramaten zituzten Asiatik Europara. Baina VI. mendearen erdialdean, Bizantzioko gobernua zetaren ekoizpen propioa kontrolatzen hasi zenean, Txinako zeta esportazioek nabarmen egin zuten behera. Eta, horrekin batera, persiar merkatarien jarduna eta etekinak ere asko jaitsi ziren.

Bizantzio eta Persia elkarren aurkako gerran aritu ziren 564 urtetik 642ra. Elkarren aldamenean zeuden bi inperioak hedatzen ari ziren eta talka egitea saihestezina zen. Justiniano boterera iritsi ze-

nean, hainbat neurri hartu zituen ekonomia –eta, ondorioz, armada– indartzeko, eta Khosrow I.a persiarrak ere oparoaldia ekarri zion bere inperioari. Gerra piztu baino hiru urte lehenago, 561ean biek bakea sinatua zuten eta, itxuraz, inperioaren arteko mugak finkatu eta onartu zituzten.

Faktore askok izan zuten eragina gatazka horretan, baina, besteak beste, bi monjek lapurtutako har txiki haiek eta sekretu handi horrek batzuei bitartekoak eta besteei motiboak eman zizkien bi inperioen arteko gerra hauspotzeko. ●

Idatzitako lehen musuak

Musuei buruzko lehen erreferentziak hinduek duela 3.500 urte idatzi zituztela uste genuen, baina daniar ikerlari talde batek *Science* aldizkarian jakinarazi duenez, duela 4.500 urte sumertarrek jaso zituzten lehen erreferentzia esplizituak. Idazkera bera hantxe asmatu zuten, Mesopotamian, duela 5.200 urte inguru, nagusiki datu administratiboak jasotzeko.

Pixkanaka, beste gai batzuetara zabaldu zuten idazkera 700 urte geroago, musuak hizpide izateko. Sexu praktika gisa nahiz senideen eta lagunaren arteko afektu adierazle moduan ageri da testuotan. Baina Troels Pank Arbøll ikerlariak argitu duenez, “ez dugu esan nahi musuak han eta orduan asmatu zituztenik. Jatorria historiarrean bilatu behar da”. ●



BRITISH MUSEUM



LIBURUA

Ohoreagatik



AXELLE DE RUSSÉ

DEITORA ZAITZALA TIGRISEK

EMILIENNE MALFATTO

TXALAPARTA, 2023

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Gaurkoan Emilienne Malfatto kaze-tari frantziarrak idatzitako liburua ekarri dut. Irakeko landa eremuan ezkontzatik kanpoko harreman bat izan duen neska baten istorio tragikoa da. Maitaleak gerrara joan eta bertan hil aurretik neska haurdun utzi du eta ekintza horrek neskarengan izango duen ondorio "ezinbestekoa" da heriotza: "Ohorea inportanteagoa da bizitza baino". Gurean, hobe da neska hila ama ezkongabea baino. Heriotzaz blaituta dagoen liburua da.


Kapitulu motzez osatuta dago. Atal gehienetan hil egingo duten neskaren ahotsa edo Tigris ibaiarena irakurriko badugu ere, protagonistaren ahizpabek, amak eta koinatak ere hartuko dute ahotsa. Lehenengo pertsona dau-de idatziak, testigantzen antza-edo du-

tenak. Kapitulu motzak dira eta pertsonaiak perfilatzeko espazio gutxi dago. Nebak protagonista ohorezko kontu batengatik hil beharrak bakoitzari sortzen dion pentsamendu eta sentimenduaren arabera suma dezakegu zerbait. Baina egoerak sor lezakeen mina, amorrua, tristura, kontraesana, zalantza, kuestionamendua ez ditut jaso. Ahotsek hotz eta distante hitz egiten dute. Gehienek erakusten dute modu sotilean desadostasuna, zalantza, tristura edo haserrea; hala ere, ez protagonistak ez beste inork ez du kontra egingo, ez du irtenbiderik bilatuko, ez da matxinatuko.

Tigris ibaiak ahotsa izatea estrategia aproposa iruditu zait. Milaka urtetan bertan egon den eta gizakiek konta dezaketena baino gehiago konta dezakeenari ahotsa ematea da. Denborak eta

gerrak aldatu egin du, leku konkretu batzuetako zikinkeria ikusten du, pertsonaia antzinakoen ezagutza du eta gizakiaren "erokeriaren" testigu da aldi berean.

Erazz irakurtzen den liburua da, intriga puntu batekin ere irakur daitekeena, "baina, azkenean hil egingo ote du?" galdetuz bezala zure buruari. Irakurri ahala sakontasuna falta zaiolako sentiazioa izan dut. Baina gero pentsatu dut bere laburrean eta bere gordintasunean pertsonaien inmovilismoak sortzen duen amorrua oso ondo transmititu duela autoreak. Eta patriarkatua bere gaixotasunean noraino irits daitekeen primeran erakusten du, zuzenean salatuta. Gainera, errealitate desberdinak ekartzea beti da aberatsa eta garrantzitsua. ●



MUSIKA

Jauziarena



XALBA RAMIREZ

Noiz da jauzi egiteko unerik egokiena? Salto egin aurretik inoiz ez dakizu iritsiko ote zaren, edo bide erdian geratu. *Goldea* jauzi bat da Ibil Bedirentzat, gaztetxo izatetik heldu izatera. Eta nire zalantza: saltoa ondo eman al dute?


Zalantza hori izan bainuen diskoa entzuterakoan. Kaleratu aurretik *work in progress* batzuk entzunak nituen, eta banekeen taldeak urrundu nahi zuela azken diskoaren giro naifetik, eta zerbait "helduagoaren" bila zebilela. Egiturei buelta eman, geruzak pentsatu, ekoizpena landu...

Kantak bihurritzen ibili ziren, leku berri batera iristeko. Berez iritsiko ez ziren lekura iristeko. Eta horrek sortzen zidan beldurra. Kantugintzak badituelako bere intuiziozko norabideak, eta normalean badutelako zarenaren zintotasuna gordeta. Are gehiago zure lanak guztiz maneiatzen ez dituzun hizkuntza

batzuk baldin baditu. Bada, *Goldea* erdibidean sumatzen dut oraindik. Pausu txiki bat gehiago beharko lukeela tamainako jauzirako.

Eta berri ona da hori. Zergatik? Hemen ez dagoelako helbururik. Bidearen parte delako erdibidea. Eta iritsi nahi zen tokira iritsi ez bada, iritsi delako beste norabaitera.

Ibil Bedikoek konfiantza eduki behar dute euren jauzietan. Zutik erortzeaz gain, dotore eroriko direla badakit. Zergatik? Bada, kantugile apartak direlako Ibil Bedikoak. Pop kanta batek behar dituen melodiak, letrak eta gogoetak josteko gai direlako, eta joskintza horiek azalean itsasten direlako. *Goldearena*, *Armairuarena*, *Lokatzenarena*, *Erreminarena*, *Norabidearena*, *Litekeenarena*, *Perimetroarena* eta *Xirarena*, den-denak, kanta zoragarriak dira. Eta behin sartuta, bueltak dituzulako azalean eta barrenean.



GOLDEA

IBIL BEDI

AUTOEKOIZPENA, 2023

Kantugile apartak izateaz gain, taldeak jauzi eman du zehaztasunean eta kalitatean. Soinua hobetzeaz gain, konposizioan findu dute, eta zuzenean nabaritzen da orain zer lortzeko gai diren. Eta ahotsak instrumentu lez, beste maila batera pasa dituzte Ibai Osinagak, Areta Senosiainek eta Amets Aranguren. Hiruek egin dute sekulako lana, baina Arangurenena da aldaketa handiena. Bere ahotsa topatzeaz gain, bere ahoskera topatzen ari delako. Eta gure eszenako ahots pertsonal eta sakonenetako bat izatera bidean doa, duda gutxi.

Zera idatzi nuen 2021eko azaroaren 21ean orrialde honetan: "Kanta sorta ederra du taldeak. Baina, irudipena dut, onenak oraindik etortzeko daudela". Bada, kanta sorta ederra handitu du taldeak. Eta ze poza. Zeren orain badakit onenak etortzeko daudela. Zeren "bidea oinatzaz estaltzen dira ari". ●



Dena aldatzen bada, nola ez ni

AMETS ARANGUREN HIBAI AGORRIA

Ia bi urtez luzatu zait Bermeoko plazan idazten hasi nintzen kronika. 2021eko abuztuan nuen lehen aldia Tatxersek lagunak oholtzan ikusten, eta gogoan dut etxean hartu gintuen Xabik nire oharrak hartzeko koadernotxoan zirriborratu zidala “ez da gauza serioetarako momentua”-ren antzeko esaldiren bat. Saiatu izan naiz beste batzuetan, baina beti irentsi izan nau kontzertuak eta orain arte ez dut kanpotik bizi eta apunte batzuk hartzea lortu.

Bilbon sei urte bizitzen eman behar izan ditu taldeko baxu jotzaile eta abeslari den Jon Salinasek hiriko oholtza bat lehen aldiz zapaltzeko. Sei urte zain, baina ez edozeinekin eta edozein oholtzataraz igotzeko. TOCeke lagun mungiarrek bero utzi diete Kafe Antzokiko eszena-tokia eta pozik eta ilusioz beteta daude iruindarrak lepo dagoen aretoari kantatzeko. Hala aipatu digute oholtzara igo aurretik Jon eta Martinek eta segituan antzeman zaie emozioa lekukoa bizkaita-

rrei hartu berritan. “Mugitzen den inor ez da nostalgikoa” idatzi du Xalba Ramirezek diskoaren bueltan egin dien kritikan, hori egotzi baitzaie hiru gazteei egiten duten musika estiloagatik-edo. Ba Antzokitik urrun geratu da nostalgia gaurkoan.

Arreta erakarri du Tatxersek azken urte eta hilabeteotan, baina iruditzen zait ez zaiela behar bezainbeste errepertatu hitzetan dakartzaten mezu batzuen indarrari. “Mina nola banatu”; “dena aldatzen bada, nola ez ni”; “nire lagunak beti doaz joan nahi ez dudana lekuetara”; “ekoizten duguna baino gehio gara”; “zenbat bizi ez bizitzeko, baizik eta erakusteko”; “ez da amore ematea, atsedena baizik”. Horiek nik poltsikoan gordetakoak. Ez dakit asko flipatzea den, baina ausartuko naiz esatera nabari dela (onerako) arte ederretako ikasle bat dagoela hitz hauetako batzuen atzean.

Eraikitzen dituzten melodien bitartez tristezia politak pintatzeko gaitasuna du hirukoteak, *Iruñea*, *Goizean Oskorri* edo-

TATXERS

NON-NOIZ: Billboko Kafe Antzokian, maiatzaren 25ean

ta *Paperezko Tigrea* kantuetan modu nabarmenenean. Aitortu behar dut azken honen bukaera instrumentalean ezin dudala Coldplay-en *Viva la vida* tarareatzea ekidin.

Norberak bere garaiaren argia baino, itzala izan behar duela esan zuen aurrekoan Uxue Reyk *Berrian* eginiko elkarrizketan. Eta zein polita ostegun iluntzez, Kafe Antzokia itzaletan dela, publikotik norbaitek besoa luzatu eta oholtzara lore sorta bat jaurtitzen duela ikustea. Poz usaina dario giroari. Musika talde bat egiten duen musikatik askoz haratago doan beste dena ere bada, “ekoizten duguna baino gehiago gara”. Agian hori batez ere?

Musikagatik ere bai, baina haratago doan beste horrengatik denagatik dira onenak (eta Euskalerrria Irratian astelehen goizez musika jartzen egon eta kantu eder batzuk ezagutarazteagatik). Bide luzea du aurretik aldaketaren beldur ez denak. ●



Hitz gezidunak

ZONAK, INGURAL- DEAK ----- ARGAZKI KOADERNO		SUIL BATEN EDUKIA ----- BIGARREN LETRAREN IZENA		SARRITAN		KLASKAREN KIDERO HOTS ----- ANITZ		MODURA HAURTZARO		HAIZE MUSIKA TRESNA ----- ANTIGUAKO LAGUN	
OIHUA, HOTSIA ----- SUARI DARIONA											
		51 NIGERKO HIRIBURUKO HERRITAR			ITURBURU, JATORRI ----- EPAILE BATEN ERABAKIA		AZTERTU AHITU, BUKATU				
IGARRI, NABARITU ----- EGUZKIA								DA, NIRI XAFLA, ORRI			
					PERTSO- NAIAREN ABIZENA ----- INTENTSIBO					GALIOA ALEAK KEN- DU ZAIZKION ARTABURU	
SAMARIAKO HERRITAR	ARRETA, ARDURA ----- OINARRIZKO OSAGAI					ONTZAT EMAN ----- EMAKUME, ANDERE					UR GEZAKO ARRAINA
INFUSIO BIZIGARRI ----- ZERBAITEN GORENGO ALDE			JULIAN AURKEZLEA ----- PERTSO- NAIAREN IZENA								
					MEREZIDU- NAK ----- AUZITEGI NAZIONALA						
ALDAPA LATZ ----- DONTSU, DOHATSU							OREKAN KILOA				
									NAHASTURA TRINKOA		

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

		4		8		7		
	3		2	7	1			
8		2		9			5	3
3		9		4			8	1
	4	7	5		8		6	9
		8		1		5	4	
4		5						2
								4
	8	1			2	9	7	

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Bakoitzari ehun.
2. Bost gehi bost.
3. Aldarte.
4. Nazka, higuina.
5. Segurki, dudarik gabe.

EBAZPENAK

5. AREAN
4. NARDA
3. UMORE
2. HAMAR
1. EHUNA
5XS

5	5	6	2	3	2	1	8	6
7	2	3	8	5	5	3	2	7
1	4	3	2	9	6	1	4	4
2	9	6	7	8	3	2	4	9
3	2	4	9	5	1	6	7	4
4	7	5	2	6	1	3	5	4
1	4	7	5	2	6	1	3	5
3	5	9	7	4	6	2	8	1
8	7	2	2	4	4	1	5	3
5	3	6	2	7	1	4	9	8
9	1	4	3	8	5	7	2	6

V	E	R	O	K	E	N	O	I	R	O	Z
N	O	V	H	V	R	V	M	V	M		
I	N	I	N	I	D	I	N	I	O	G	
O	R	O	Z	J	N	V	I	E	J		
L	X	O	M	R	V	I	R	V	M	V	S
T	U	V	N	O	V	T	V				
V	G	V	L	O	G	V	P	V	I	K	E
J	I	V	Z	N	V	E	M	Z	J	N	V
U	T	E	R	I	V	I	L	E	K		
V	N	V	I					V	I	E	D
L	V	U	R	P	L	M	U	B	T	V	
F	E	K					S	V			

Amaia Elizagoien Varela

HALA BAZAN...



ORONOZTIK MUNDURA, KONTU KONTARI

Txiki izateak ematen duen abantailan sinesten du Elizagoienek. Gauza baten gehiketa eta bestearen kenketa eginez, Oronozen bizitzearen aldeko apustua egin du. “Gure inguruan aunitzek etxe oso handiak egin zituzten, aunitz maizterrak izan zirelako garai batean, eta sos apur bat ukaten hasi orduko familiarendako etxe handi bana egiten hasi ziren. Aita horietako bat da. Etxe-bizitzaren egoera ikusirik, gurasoen etxearen gainean nire bizilekua egitea erabaki nuen”. Eraiki duen bizilekuaren epelean, Baztango txokoan sortzen du ipuin kontalariak guretzako emaria.

“Kontalari aunitz dago Euskal Herrian, eta entzule eskas”

Erreterian elkartu ginen, Lekuona Fabrikan, ipuin kontalari saioa baitzuen Amaia Elizagoien Varelak. Saioak, ordea, etenik ez zuela izan iruditu zitzaidan, trebetasun handiz astintzen baitu mihia baztandarrak. Ipuin kontalari izateko apustua egin zuen, ahozko transmisioaren garrantziaz jabeturik. Plazaz plaza eta gelaz gela ibiltzen da usu, eta ipuin kontalari izateak dakarren anonimotasuna atsegin du. “Zer kontatzen den garrantzitsua da, baina nola kontatzen den are gehiago zenbait kasutan”, erran digu.

 **AITZIBER ZAPIRAIN ETXANIZ**  **IRANTZU PASTOR**

Sorkuntzaz bizi zarela esan daiteke?

Bai, zorionez hartu ahal izan dudan hautua da. Jakina ez dela erraza, baina horren aldeko apustua egitea ausardia handiko ekintza izan zait. Urratsa eman ostean, norberak bere lekua topatu eta eraikitzea besterik da. Ibilian-ibilian eraikitzen da.

Zer sortzen duzu?

Nire kontaketak bidaia kolektiboa izan daitezen saiatzen naiz. Haurrak eta helduak nirekin eramaten ditut kontatzen ari naizen bitartean. Historiako pertsonaien bizitza zein ekintzetan murgiltzeko ahalegina egiten dut, entzuleak nirekin batera bidaia dezan. Musika eta hitzari esker, herdoilduta dugun irudimena abiaraztea da helburua. Irudiaren mundu hone-tan, irudimena alboratua dugu, eta ipuin kontaketak berreskuratze-ko balio dezan nahi nuke.

Askori kosta egiten zaizue artista izatera aitortzea zeuen buruari. Kontalariaren ofizioak badu gaine-

ra ezaugarri berezi bat: plazaz plaza egon arren, oso ezezagunak gara. Musikan goi mailan ari den lagun bat dut, eta biok sorkuntzatik bizi arren, errealitate oso ezberdina dugu. Geurea oso intimoa dela uste dut, bertso-lari, aktore edota musikarien egoe-rarekin konpara ezina. Horrek badu bere alde positiboa, jakina. Sorkuntzarako aukera ematen didan proposamen gehienak hartzen ditut, ez baitakit bihar nola egonen naizen, lanik izanen ote dudana. Hori du artistaren bizitzak.

Zer behar du ipuin kontalariak?

Esango nuke kontalari on bati igarri egin behar zaiola hizkuntza menperatzen duela. Igarri egin behar zaio egunerokoan erabiltzen duen hizkuntza dela. Euskaldun gisa gainera, pentsatzen dut gure ipuinek badutela herritarrak sustraitzeko zerba-it, ez dakit izendatzen. Magikoa da. Kokatu egiten gaituzte, hemengoak garela gogorarazi eta sentiarazi. Espazioa-ren bidez, pertsonaia eta hauen erru-tinen bidez... Publikoa ere kokatu



"Kontalari on bati igarri egin behar zaio hizkuntza menperatzen duela; Igarri egin behar zaio egunerokoan erabiltzen duen hizkuntza dela".

behar du ipuin kontalariak, eta une eta leku horretako saioa bertara egokitu. Gauza gehiago ere behar direla esango nuke, baina hauek dira gutxieneoak.

Ipuin bera, beti modu berean kontatzen denean...

Kolonbiako kontalari batek erraten zuen ipuin bat behin eta berriz modu berean kontatzen denean ipuin hori hil egiten duzula. Berpiztu dezakezu, baina egokiena da urte pare batez gordetzea. Eskerrak eman zurekin egin duen bideagatik eta pausatzen utzi. Litekeena da, epe bat pasa ostean gustu handiz berreskuratzea.

Kontalariak ipuinean sartuta egon behar du, pertsonaiekin kontaktuan egon, pertsona bizi. Modu automatikoan aritzeak kontakizunari funtsa kentzen dio.

Aktoretik ere baduzue?

Korronte eta iritzi asko daude honen inguruan; nire ustez, pittin bat bai. Gorpuztarekin aritzea atsegin dut, laguntzen duela esango nuke. Eta hizkuntzalaritza-tik ere zerbait badudala uste dut. Gure kasuan euskara hizkuntza gutxitua dela kontutan harturik, sinonimoak ere era-

biltzen ditut, eta bata bestearen giblean zerrendatzen ditut haurrek hiztegia elikatu dezaten. Gauzak ikasteko gaitasun handia dute haurrek.

Haurrekin ez ezik, helduekin ere aritzen zara.

Bai, usu haurrekin lotzen dira ipuinak, baina ez da hala. 1970 ingurura arte, aitzin askoz ere ohikoagoa zen Euskal Herrian helduen arteko ipuin kontaketa, eta erraten da garai batean etxeko sukaldea zela ipuin kontalarien gune nagusia. Familian lan errepikakorrek egiten ari zirenean aritzen omen ziren. Umerik egonen zen tartean, baina helduak helduentzat aritzen ziren. Gutxika hezkuntzan sartzen hasi ziren, eta geroztik lotzen da haurrekin ipuinak kontatzea. Baina harago doa, edo joan beharko luke bederen: denok eskertzen dugu ipuinen bidaiari sartzeari. Helduok aukera eman behar diogu geure buruari ipuin batekin hunkitze-ko, negar ala irri egiteko.

Zer behar du entzule on batek?

Entzuten jakin. Aunitzetan 45 edota 60 minutu inguruko saioak izaten dira, eta nabari da nork daukan ohitura eta nork

ez. Helduen kasuan eskertzekoa izaten da sakelakorik ez ateratzea, adibidez. Esango nuke entzuten ikasi egin behar dugula, izan haur zein heldu. Euskarak hori behar duela esango nuke, adierazi eta entzuna izan. Horretan ere eragin dezakete hezkuntza zentroek, eta irakasle bat ere izan daiteke ipuin kontalaria, jakina. Borobilean jarri, liburua hartu eta aurrera. Egutetik egunera hobeki egingen du, ziur. Eta ipuina bakarrik ez, gertakari bat, bezperako eguna... Dena delakoa konta daiteke, kontua aritzea baita.

Etxeko ipuin kontalaria, zer esan?

Edozerk balio duela, pantailak albo batera uztearen erronka gaindituta. Zenbat etxetan ikusten ote da bakoitza pantaila baten aurrean egotearen irudia, elkarrekin solasean aritu ordez? Hitz egitean, kontatzean transmititu egiten da. Emozioak, jakintza, ohiturak... Denetarik. Ez dezagun hori galdu.

Kontalari aunitz dago Euskal Herrian, entzule eskas gaude agian. Eta hori dugu eraldatzeko gaur egun. Dena oso azkar doa irudiaren mundu honetan, eta hitza motela da. Baina moteltasuna ederra da. ●

Zuzendariari gutunak

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Badut iritzi anakroniko samar bat: egunkaria paperean irakurtzea bezalakorik ez dago hemen, hango eta haragoko kontuei buruz ikuspegi nahiko zabala edukitzea. Paperezko egunkaria sekulako inbentoa dela uste dut: faszikuluka publikatzen den nobela errealista duzu. Hamaika eskuk idatzitako historia korala, baditu milaka protagonista, bigarren mailako pertsonaia, ustekabeko gidoi-errebuelta; eta ados, askotan erraz samar aurreikus daitezkeen tramak ere bai –horrelakoak baikara, zer egingo zaio: oso tartean behin okurrizten zaigu gauza berriren bat eta, bitartean, ezer egin gabe ez egoteagatik, gutxienez aurrekoari kopiatu behar-. Egunkariaren aldean, sareetako klikamizka digitalaren bidez informatzeak “Aukeratu zure abentura” estiloko liburuxko baten esperientzia eskaintzen dizu gehienez.

Egunero zerbait osoa kontatzeko bo-kazioa baitu paperezko periodikoak. Imajinatzen dut egunkari batean lan egitea izango dela hitzak bilatzea *Dena edonon aldi berean* izeneko eleberri bantentzat, zeina pelikula baino askoz hobea izango den –ia beti bezala–, tituluak iragartzen duena betetzea imposiblea den arren. Eta imajinatzen dut egunkari baten zuzendaria jai eta aste biziko dela imposible hori garaitu nahian, Tolstoi-*ren Gerra eta bakea* autotxoke batean sartuta idazten ahalegintzen diren kazetariekin batera, munduari ez daukan koherentzia bilatzen, teletipoen eta telefono-deien kazkabarpean, Politikan eta Nazioartean, azken ordukoan eta analisisan, goiza irekitzeko notizian eta edizio itxieran, osasunean eta gaitzean, tristuran eta pozean, aberastasunean eta patrikaren zimurrean.

Ez dizuet esan oraindik: artikulua hau Martxelo Otamendik *Berria*-ren lema Amagoia Mujika Tolaretxipiren esku utziko duela jakin ostean ari naiz te-



BERRIA

kleatzen. Notiziari dimentsioa aurkitu behar, eta hasi naiz pentsatzen zer izan behar den *work in progress* nobela korral kolektibo kaotiko hori egunero gildatzea 30 urtez. Kronika luzeegia bidali duen kolaboratzailea haserre artikulua moztuta atera delako; laburregi argitaratu den mobilizazio-deialdiagatik muzindu den mugimendu soziala; argazki-oineko hanka-sartzea, ez zuela Mirari izena, Miren baizik; banderizoak, bandoleroak, bonbero-toreroak eta “Schrödinger irakurleak” ahaztu gabe: kirol gutxiegi euskaldunei interesatzeko eta, aldi berean, kirol gehiegi euskaraz irakurtzen dutenen intereserako; euskara zailegia darabilela; darabilen euskara ez dela aski jasoa; urdinrentzat gorriegia, gorrientzat berdeegia, berdeentzat, auskalo zer koloretakoa. Eta “Zuzendariari gutunak” sekziara bidaliko baliutze sikiera, orriren bat betetzen lagunduko lukete, baina keba, aurpegira botatzen dizkizute okasioa dutenean.

Batek baino gehiagok, sinetsiko didazue, lana haizeak hartzera bidali eta Tasmanian ospa egingo luke –joaneko txartelarekin bakarrik–.

30 urtez horretan aritu denak ofizioari dion pasioa ezin da eztabaidatu. 2003ko puñalaren ondoren beste bi hamarkadaz aktualitatearen pulsuari eutsi diola ikusita, zer esanik ez. Baina gezur armatu hura gogoratzen nahiago hitz askorik ez gastatu. *Egunkaria*-ren itxiera etorri zaigu burura, noski, erreleboaren albistea ikustean. Injustizia hura ahaztu gabe, nik behintzat argi daukat digutenaz baino dugunaz hitz egiten enpeinatzea dela hemen kontua, euskal kazetaritzarentzat posible ez ziruditen asmoak gauzatzen aritu eta ari direnen lana behar bezala baloratu-ko badugu behintzat. Eta Otamendiren hitzak gogoratuz –Jose Luisenak, kasu honetan– egunkari-orriak egunero eskuetan hartu: bandera ederra dira inon ez den herriarentzat. ●

egonarria

Lurrari entzuten dion saioa

Saioaren gaia:

Ekologikoa

Biolur elkarteak 30 urte bete ditu eta Miriam Agirrezabala eta Peio Rubiok azalduko dute ibilbidea

Bestalde, **Oiartzungo Urmendi Haur Eskolako jantokiko** esperientzia ezagutuko dugu

**Mattin Jauregi eta
Eli Pagolak aurkeztuta**

Asteazkenero bideo-podcasta
ARGIA eta plataforman guztietan

 [ARGIA.eus/podcast](https://argia.eus/podcast)



BIZI BARATZEA

Zure landareak zaintzeko

Jakoba Errekondoren eskutik



Bizi Baratzea
8. argitaraldia
23 €

Baratzezaintzaren jakintza osoa bildu da liburu honetan. Baratzearen entziklopedia.



Etxeko landareak
2. argitaraldia
25 €

Etxeko barruko, balkoiko, eta lorategiko 92 landare hobeto zaintzeko gakoak emango dizkigu liburu honek.



Ilargia eta landareak 2023
urteko lanen agenda
14 €

Landareekin egiten ditugun lanak jaso eta ikasteaz gain, agendan idatziko ditugu bakoitzak gure bizitzako hitzorduak, gogoan hartu beharrekoak eta gainerakoak.

Garbiñe Larrearen eskutik



Sendabelarrekin dakitena
2. argitaraldia
25 €

45 sendabelarren propietateak ezagutzeko eta osasunaren mesedetan erabiltzeko informazio zehatza aurkituko duzu liburu honetan.



Sendabelar Baratzea
14 €

12 sendabelarrekin sendatzeko baratzea lantzeko proposamena egiten dizugu liburu biribil honekin.